

26.zk
2007

IDEA 26

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA

ESKOLARRA

GURASOAK: HEZKUNTZAKO ERANTZUKIZUNA ETA ESKOLAKO ESKU HARTZEA

EDITORIAL

Hezkuntzaren gaineko erantzukizuna eta hezkuntzan parte hartzea

Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluburua

PERTSONAK

Familiaren partaidetza XXI. mendeko hezkuntzan

Lola Abelló Planas, Ikasleen Guraso Elkartearen Espainiako Konfederazioaren Lehendakaria (CEAPA)

Gurasoen zailtasunak hezkuntzan

Luis Carbonel Pintanel, CONCAPAren Presidentea

Gure seme-alabaren formakuntzan gurasoen erantzukizunaz

Milagros Apeztexea, SORTZEN-Ikasbatuazeko Kidea

FOROA

Eskola eta familia: elkarri laguntzen dioten bi instituzio

Loren Albéniz Ascorbe, Familia Zuendari Nagusia

Gurasoak eta eskola: ezinbesteko lankidetzak

José Miguel Garbayo Villanueva, Aita (CONCAPA)

Eskola eta familiaren arteko errespetua eta konfiantza

Ana García Paniego, Ama (Herrikoa)

Horretan gaude

Gerardo Castillo Mtzez-Olcoz, Aita (SORTZEN-Ikasbatuaz)

IKASGELA

Gurasoen partaidetza eta Prestakuntza hezkuntza zentroan

Andrés Jiménez Abad, Pedagogoa, Iruñako "Basoko" BHIko Filosofia Katedraduna

Haur-eskolan parte hartzeko modua

Belén Jiménez Bardina eskutik, Larragako IPren Haur Hezkuntzako Irakaslea

Seme-alabaren hezkuntzaren inguruko eskubideak eta beharrak

Alberto Cascante Díaz, "Irabia" ikastetxeko Maisua eta Pedagogoa

Seme-alabaren autonomia eta independentzia: hezkuntza helburua

Yolanda Remírez Echeverría, Mendillorriko "El Lago" Ikastetxe Publikoko Ama

Familiarengandik eta eskolatik espero dudana

Andrea Berges Cengotitabengoa, Iruñako "Plaza de la Cruz" BHIko 2. Batxilergoko Irakaslea

PRENTSA ALBISTEAK
BIBLIOGRAFIA
ARAUDIAREN AIPAMENA



Editoriala

HEZKUNTZAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA ETA HEZKUNTZAN PARTE HARTZEA

Javier Marcotegui Ros
Nafarroako Eskola Kontseiluburua

Indarreko Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan, pertsonaren oinarriko eskubideen kapituluan, hain zuzen, eta garapen eta babesarako araubide bereziaren mende, guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea, irakaskuntzaren askatasuna, gurasoek euren seme-alabek sinesmen egokien arabera erlijio- eta moral-prestakuntza jasotzeko eskubidea, agintari publikoek irakaskuntzaren programazio orokorra egiteko betebeharra, ukitutako sektore guztien parte-hartze eragingarria izateko eskubidea, eta, azkenik, gurasoek, eta, hala denean, ikasleek funts publikoekin aurrera eramaten diren ikastetxe guztien kontrolean eta kudeaketan esku hartzeko eskubidea jasotzen dira.



Javier Marcotegui Ros

Eskubide horiek gurasoek euren seme-alabei hezkuntza emateko duten eskubideari eta naturaren arabera egin beharri kalterik egin gabe egikaritu behar dira, haurrentzako hezkuntza-mota aukeratzeko lehenespeneko eskubidea, bederen, giza eskubideen adierazpen unibertselean jaso den bezala.

Hezkuntza jasotzeko Eskubidearen Lege Organikoan (LO-DE), beste alderdi batzuen artean, 1985. urtean gaiok jorratu ziren, guzti horien arteko bateragarritasuna bilatzeko xedearekin. Hori dela bide, beste gai batzuen artean,

Gobernu-organoekin lotutako oro arautu zen ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan, horien artean, kide anitzeko organoak: Klaustroa eta Eskola Kontseiluak. Halaber, berehala horien artean tentsio dialektikoa sortu zen horietako bakoitzari atxikitako eginkizunen norainokoari begira. Klaustroaren aburuz, ikastetxeko plangintza-, kudeaketa- eta zuzendaritza-atxikipen gutxi zituen Kontseiluarekin erkatuta. Kasu horretan ez zen eztabaidatu parte-hartzaren konstituzio-printzipioa, horren norainokoa eta edukia baizik. Zalantzarik gabe, arrazoi tekniko nabarmenak medio, irakasleek gazteen prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuko eginkizun zehatzen gaineko esku-mena dute eta horiek gurasoei debekatu behar zaizkie. Modu horretan, irakasleek ez dute esku hartu behar, katedra-askatasuna egikaritzearen ondorioz, naturaren arabera prestakuntza-prozesuan murgilduta dagoen subjektuaren, eta hori adingabekoa denean, gurasoen edo tutoreen erantzukizunpeko prestakuntza-prozesuaren funtsezko alderdietan.

Hortik gurasoek, betiere ikasleen prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuan berezkoa dena errespetatuz, erantzukizunak bertan behera ez utzi, besteari dagokion eremua errespetatu eta lankidetzara, koordinazioa eta sinergia eraginkorrenak bilatzeko beharrian eztabaidaezina.

IDEA aldizkariaren zenbaki honen aurreko bien osagarri gisa, zenbaki hau gurasoei eskaini diegu. Gurasoek, gurasoen elkarte bidez, eta, zenbait kasutan, banaka, askatasun osoz euren dagokien erantzukizunaren inguruan adierazi dira, bai eta eskoletako prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuan duten parte-hartzea egokitzeko moduari buruzkoa ere. Azkenik, ikastetxe publikoetako eta pribatuetako lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleek gai garrantzitsu horri buruz azaldu duten ikuspuntuarekin amaitzen da.

Eskola Kontseiluen azken jardunaldian, gai hori jorratu dena, norbaitek esan du prestakuntza-prozesua bi ikuspuntuetatik (Familia eta Eskola) eskaintzen dela. Zernahi gisaz, bi ikuspuntu horiek batera lan egin behar dute, eta helburua subjektu bakarraren prestakuntza da: ikaslea. Hortik aldizkarian jaso den horietako baten lekukotzaren garrantzia.

Pertsonak

FAMILIEN PARTAIDETZA XXI. MENDEKO HEZKUNTZAN

Lola Abelló Planas
Ikasleen Guraso Elkartearen Espainiako Konfederazioaren Lehendakaria (CEAPA)

Eskola bizikidetasuna, ikasleen errendimendua eta, definitiboki, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko, oso azkar aldatzen den gizarte batean, eskolan familien partaidetza kotak handiagoak izan behar dira.

XXI. menderako imajinatzen genuen eskola publikoa eta errealitatea konparatzean, agian, bakarrik gure helburu

batzuen isla zurbil bat baino ez dugu aurkitzen. Oso azkar aldatzen den gizarte batean zailtasunez aurrera egiten dugu, testuinguruak egunerok harrizten gaitu. Eskola publikoak, publikoak den guztiarekin gertatzen den bezala, betetzen hasten



Lola Abelló Planas

Pertsonak

garenean konplexutasun berriak dituzten erronka batzuei erantzun behar die. Atzo onargarria zena, gaur partziala iruditzen zaigu, osatugabea eta estrategia berriak bilatu behar ditugu, irteera berriak hezkuntza momentu ba-koitzean erantzuna bilatzeko.

Gizarteak asko aldatu du, familia estrukturalak dira, familia ez da harrera unitateko eredu bakarra; familia umeak eta gazteak iritertzen diren unitatea da eta egun osoan zehar ikasketa formalak, ez formalak, informalak, etab. burutu ondoren hara itzultzen dira. Haurtzarokoaren kontzeptuak, gizarte irudikapenari dagokionez, aldaketa asko jasan ditu: lan egiteko besoak izateko babes behar duen ondarea izatera pasatu da, autonomiari laguntzen ez dion gainbabesa plasmaturik. Haur eta helduen arteko harremanak ere asko aldatu dira. Kasu honetan oso bide boteretsu bat sartu da etxean, eta baimenik eskatu gabe: telebista eta pantaila guztiak, zeinen bitartez gure seme-alabak eta gazteak sozializatzen diren. Hizkuntza berriak, kode ezezagunak, eta helduok, horien berri ez ditugunok, informazio eta komunikazio teknologien beldur gaude. Teknikarekiko eta kanal berriekiko giza harremanen egitura konplexua, eta horretan gurasoak eta irakasleak nabigatu behar dugu, egunero jasotzen dugun informazio uholdea haur eta gazteentzako ezagupenak izateko.

Eta bitartean, eskola bere erdituetan jarraitzen du, bere arauarekin, testu liburuetan agertzen diren ezagupenekin, egia bakarra izango balitz bezala. Aldatzeko joera gutxiarekin, aldaketa soziodinamikoak eskola instituzioa ere astindu dute eta zergatiak baino egileak bilatzen ditu, eta defendatuta izan beharrean zentsuratuta izaten da.

Denboraldi berrien aurrean, eskolaren funtzio berriak. Ezagupenak transmititzen dituen bakarrik ez denez, trebetasun ezezagunak bilatu behar izango ditu informazioa ezagupenean sartzeko. Geletan dagoen dibertsitatea gizarte aniztasunarekin bat dator, eta irakaskuntza hamasei urtera arte orokortzearen ondorioa da. Haur horiek, gaitasun, kultura eta ideologiei dagokionez desberdinak direnak, familia pluralitatean bizi dira, osatzeari eta baloreei dagokionez, eta hori datu adierazgarri bat da familia eta eskolaren arteko harreman bide berriak egiteko.

Ez da berria, txosten askok indartu dutelako: eskola leku pribilegiatu bat da, zeinetan haurrak sozializatzen diren, hau da, hor haurrak elkarrekin bizi dira, beste batzuekin bizi dira, eta beraz harreman espazioak sortzen dira, zeinetan elkarrekin bizitzen eta hiritarren gizarte arauak ezagutzen, ezartzen eta errespetatzen ikasten duten.

Familien hezkuntza funtzioa

Oso momentu konplexu batean bizi gara, eta horretan heztea oso zaila da. Behin eta berriro eta oso azkar aldatzen den gizarte eszenatoki batean bizi gara. Familia kontzeptua asko aldatu da eta familiak aipatzen ditugunean pluralean egiten dugu, familien osatura anitza delako. Familia bat osatzen duten helduek etxetik kanpo lan egiten dute eta gehienetan ez dute aiton-amonen edo beste familiako batzuen laguntza, eta horren ondorioz gurasoek eskola publikoaren inguruan laguntza sare bat egi-

ten dute, auzo edo udalerriarekin interakzionatzen duena. Modu horretan, eskolatik hurbil dagoen gizarte sarearekin konpromisoak hartzen ditugu eta hiritar moduan parte hartzen dugu horretan.

Ziurgabetasunean heztea, parametro fidagarririk gabe, nahasi egiten du. Belaunaldiz-belaunaldiz igorri diren familia ereduak ez dira onargarriak egun, eta hausnartaririk gabe asimilatzen ditugun beste eredu batzuei buruzko informazio kantitate handiak aldatzen ditu. Aldi batzuen zehar adituek markatu dute gure seme-alaben hezkuntza erritmoa, berezko guraso funtzioa kolokan jartzen. Geroago, beste aldi batean zehar, gure hezkuntza funtzioak eskolaren esku uztea aurpegiratu digute, eta egia esanda, gizarteak hezkuntza zama gehiegi eman dio eskolari. Eta bada ordua gurasoek eta tutoreek adiskidetasunean, sentimenduetan eta emozioetan oinarrituriko hezkuntza funtzioan gure konfiantza berriro jartzeko. Familia harrera unitate sinple bat baino da, zeinetan haur eta helduen artean adiskidetasun harreman batzuk ezartzen diren, babes emateko ez ezik, hezkuntza emateko ere. Egun hezkuntza funtzioa familia eta hezkuntza instantzia desberdinen artean konpartitzen da, haien artean eskolarekin, gehi inguratzen gaituzten gizarte taldeak, komunikabideak, eta botere soziala, politikoa edo ekonomikoa duten beste gizarte estruktura batzuk azaltu gabe; eta horiek etxebizitzaren prezioaren igoetzea erabaki ahal dute edo ekonomia ezinezkoak diren ordutegiaren eta kontratu ezegonkorretan oinarrituta egotea.

Beraz, gurasoen hezkuntza funtzioak hezkuntza komunitatearen zirkulu txikia gaintzen du hiritarren partaidetza dimentsioan zehar.

XXI. menduan parte hartzea

Aurreko mendearen amaierara arte, eskolan parte hartzeko GEn eta sorturiko kanaletan, esaterako Zentroko Eskola Kontseiluetan, partaide izatearekin nahikoa zen; azken instituzio horrek ikastetxearen antolamenduaren eta gizarte kontrolaren bitartez eskola publikoaren demokratizazioa bermatu behar zuen. Lege aldaketetan horrek izan dituen gorabeherak anitzak izan dira, eta hasierako funtzioa eta lanak ia ez dira garatu zentro askotan.

Egun, irakaskuntza-ikaste prozesua asko aldatu da. Lehen imajinatzen ez genituen prozedurak eta trebetasunak eskatzen dizkiogu eskolari, ikaste prozesuaren protagonistak, hau da, egungo haurrek eta gazteek aurreko belaunaldiekin zerikusia ez dutelako, batez ere eskola instituzioak ikusi nahi ez dituen beste bide batzuen bitartez beste estimulu batzuk jasotzen dituztelako.

Eskolak ezagupenen igorpenaren monopolioa galdu du eta horrek erronka, zalantza eta susmo berriak planteatzen ditu; kontzeptu berri batzuk birformulatu behar ditugu: irakasleen autoritatea, gelako bizikidetasuna, eskola jardueren sistema, etab. Familientzat ere tradiziozko hezkuntza funtzioak aldatu dira, gure seme-alabek behin eta berriro agente desberdinen hezkuntza bultzadak jasotzen dituztelako, eta horiek kontuan hartu behar ditugu eta zenbaitetan horien kontra egin behar dugu.

Pertsonak

Hezitzaileok ditugun gizarte erronkek askotan tentsio askoren azpian jarri ahal gaituzte, eta horiek gainditzeko ezinbestekoa da familia eta eskolaren arteko kooperazioa, informazioak eta ezagupenak markaturiko mende baten eskaerekin egokituriko prestakuntza bidean aurrera egin ahal izateko.

Aurretik azaldu dugunez, bizikidetasuna zentroetako ohiko jardueren parte izan behar da. Prozedurak eta kontzeptuak ikastea jarrerak ikastea bezain garrantzitsua da, eta orain bigarren hezkuntzan jarri behar dugu arreta. Nerabeek garrantzi handia ematen diote familiari; berdinkideen taldeak erakarpen handia duen aldaketa momentu horretan, gurasook seme-alabenengandik hurbil egon behar dugu, haiek ikusi gabe, baina hor egotea ezinbestekoa da.

Beraz, gurasoen rola birplanteatu behar dugu zentroan, bereziki bigarren hezkuntzan, partaidetza indartuz inplikazio eta konpromisoaren bitartez. Konpromiso hori hiru multzotan antolatu behar da: ikasleak, irakasleak eta familiak.

Ezinezkoa da partaidetza parte hartzeko denboraren menpe egotea. Gure seme-alaben hezkuntzan inplikatu behar dugu. Borondateaz gain, gizarte onarpena behar dugu, gurasoen hezkuntza funtzioa sozialki eta administrazioaren partetik baloratuta egon behar da, gehienok sartuta gauden guztizko ahalmenaren lan ordutegien tirania horrek ez presionatzeko eta eskolan partaidetzaren bitartez komunitateari zerbitzu bat eskaintzeagatik eta hezteagatik gozatu ahal izateko, eskola kontseiluetan, GEen federazioetan, esparru lokalean, nazionalean zein nazioartekoan.

Momentu egokia da hausnarketa egiteko eta GEen funtzioa birplanteatzeko, ez bakarrik ikasleen guraso moduan, baizik eta hiritarren erantzun aktiboak eskatzen dituen eta behar batzuk dituen komunitate batean sartutako hiritar moduan, gizarte justuagoa, solidarioagoa, berdintasunezkoagoa izateko, zeinetan hezkuntza urrunago joango den eta hezkuntza sistemarekin batera interakzionatuko duen.

GURASOEN ZAILTASUNAK HEZKUNTZAN

Luis Carbonel Pintanel
CONCAPAen Presidentea

Hezkuntza esparruan gehien entzuten den esaldienetarikoa bat familien erantzukizunen eskuordetzarekin erlazionaturik dago. Gurasoek hezkuntza funtzioa betetzen ez dutela entzuten da eta haiei dagozkien erantzukizunak eskolaren eta irakasleen esku uzten dituztela. Hala ere, hau ez da zehazki horrela.

Familiek, arrazoi asko eta mota askotarikoengatik, ezin dute seme-alaben erantzukizunek eskatzen duten eskakizunei aurre egin, baina ez dute inoiz horien utzikeria egiten, nahiz eta orokortasunak onargarriak ez izan.

Familiak, gurasoak, seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak dira. Badakite eta bete egiten dute. Arazoa familia arautzen duten eta hezkuntza zentroan dauden baloreen arteko bat etortzean datza.



Luis Carbonel Pintanel

Hasiera batean oso deigarria ez den ideia hau, oso garrantzitsua da, familiaren hezkuntza funtzioa ez baita etxe barruan eskola curriculumarekin egitea, guztiak horretarako gai ez direlako bereziki. Horien beharra balore etikoak, moralak eta erlijiosoak ezartzea da, haien ustez seme-alaben hezkuntzari eusteko egokienak direnak.

Eta hori ez da beti erraza izaten, askotan, irakaskuntza zentroetako ideia faltaren aurka egiten duelako, bereziki zentro publikoetan, neutraltasun faltuan tematuta daudenak, baloreen inguruko erabakiak irakasleen esku uztea dakarrena.

Zenbait administrazio publikotako egiteetan ere oztopoak aurkitzen ditu, etorkizuneko hiritarrak nolakoak izan behar diren erabakitzen ibiltzen direnak; eta azkenik antolamendu eta esturturekin topo egiten du, ikuspegiak adierazteko eta defendatzeko foroetan familien partaidetzarako zailtasun gehigarriak sortzen dituztenak.

Egia da, zenbait hezkuntza zentrok determinaturiko balore batzuetan inspiraturiko hezkuntza eskaintzen diote gizarteari, hau da, ideiekiko hezkuntza programa. Borondatez zentro horietan sartzen direnek seme-alaben hezkuntzan zuzenean parte hartzeko aukera gehiago izango dute, gutxienez badakitelako eskolako balore moralak eta haiek irakatsi nahi dituztenak bat datozela.

Kontrara, libreki hezkuntza zentroa aukeratu ezin dutenek, edo aukera bakarra dutenek, gehienetan euren itxaropenekiko bat ez datorrena, hezkuntza kontrola galtzen dute eta jatorriz haiei dagozkien erantzukizun horri uko egiteko beharra izaten dute neurri handi batean. Horregatik, beste batzuen artean, Europako zenbait herritan zentro publikoak ere ideia propioak izaten hasi dira, eta neurri horrek, zalantzarik gabe, familiaren eta eskolaren arteko bateratasuna eragingo du eta ikasleen prestakuntza osorako baldintza hobek sortuko ditu.

Askotan, administrazio publikoek sortzen duten oztopoa saihestea zailagoa izaten da familientzat. Egun, Espainian, horren adibide argia dugu, botere publikoen egitea curriculumean zentratuta dagoelako, hezkuntza gaien edukietan, hau da, arlo teknikoenean, zeinetan familien egiteak lekuri ez duen. Modu horretan, eta horrela gertatzen da hiritarrentzako hezkuntza izenekoarekin, familiei dagozkien seme-alaben hezkuntzaren gaien inguruko

Pertsonak

erabakiak familiei kentzeko baldintza guztiak ezartzen dira, bereziki gurasoen baloreekin bat ez datozen balore batzuen inposatzearen bitartez. Are gehiago, horien kontrakoak ere izan daitezke. Baldintza horiekin ez da onargarria familiei erantzukizunak eskatzea. Botere publikoak gurasoei dagozkien esparruak betetzen baditu, asaldatzeko eta liskarrak sortzeko aukera bakarri gelditzen zaie euren hezkuntza arloak defendatzeko.

Eta azkenik, oztopo estruktural batzuk daude, hezkuntza esparruan familien presentzia oztopatzen dutena, eta hori barik hezkuntza sistemaren sorreran eta garapenean eragina izateko gaitasuna lermatzen da, baliogabetzen ez denean. Zentzu honetan, gurasoek, gurasoak izateagatik bereziki, familiekiko beste behar batzuk dituztela ahaztu egiten da askotan. Esaterako, mantenuarena. Erraz ulertzen diren eta ohikoak diren ikasleen gurasoen lan beharrak –horretan ez dira hezkuntzaren langileen-gandik desberdintzen- ez dira kontuan hartzen hezkuntza sistemaren jarduerak programatzeko orduan: tutoretzak, Eskola Kontseiluen bilerak eta seme-alaben hezkuntzan eragina duten beste jarduera asko eta asko gurasoen egotea errazten ez duten ordutegietan programatzen dira askotan.

Hezkuntzaren langileen eta familia gurasoen lan beharren batzean, azken horiek galdu egiten dute beti. Eta egun oraindik gurasoen parte hartzearen gutxitzearekin harritzen dira batzuk, eta benetan harritzekoa dena hezkuntzaren hobekuntzan parte hartzeko beste gauza batzuei uko egiteko gaitasuna duten gurasoak egotea da.

Hezkuntzan familien ardura interes pertsonal, profesional edo partikularren menpe ez dagoela ulertzen ez badugu eta horien parte hartzea testigantza baino zerbait gehiago izateko baldintza beharrezkoak sortzen ez baditugu, ezin da esan partaidetzaren falta erantzukizunen utzikeria dela. Irakaskuntzaren langileen ordezkaritza egiteko, lanari utzi behar zaio. Familien ordezkaritza egiteko, familiari utzi behar zaio eta denborari denbora lapurtu behar zaio.

Laburbilduz, baliabide gehiago behar dira familiek baliabide beharrezkoak izateko eta horrela seme-alaben hezkuntzan benetan parte hartu ahal izateko, eta batez ere, euren hezkuntza eta ideologia irizpideak errespetatu behar dira, bereziki arduradun nagusiak direlako eta Espainiako Konstituzioak horrela ezartzen duelako.

GURE SEME ALABEN FORMAKUNTZAN GURASOON ERANTZUNKIZUNAZ

Milagros Apeztexea
SORTZEN-Ikasbatuazeko Kidea

Zein da gurasoon ardura ikasleen formakuntza prozesuan, gizartearen balore propioetan eta guri dagokigun kulturaren hezi ahal izateko? Nolako parte hartzea izan be-

har dugu gurasoek? Zein izan beharko litzateke parte hartze honen zentzua ikaslearen formakuntza prozesuan?

Hona hemen iritzi artikulua egiteko ezarri diguten gaia eta ondorenean ahalik eta zuzenen erantzuten saiatuko naizena. Galdera hauek erantzuten hasita ostera, beste galdera batzuk dagozkiz burura: zein dira gizartearen balore propio horiek, edo balore horiek al dira gure ikasleak hezteko egokiak? Zer ulertzen dugu “guri dagokigun kultura” gisa? Eta garrantzitsuena zein egoeratik abiatzen gara ikaslearen formakuntza prozesu honi modu egokian erantzuteko? Joan gaitezen atalez atal.



Milagros Apeztexea

Hasteko zein egoeratik abiatzen gara? Bai Nafarroan eta bai Euskal Herri osoan hezkuntza normalizatu gabe dago. Hezkuntza gure beharren arabera antolatzeko tresneria ez dago gure eskutan. Hezkuntza Sistema Propio honen faltak goitik behera ipotekatzen du ikaslearen formakuntza prozesua. Alde batetik herri honetako nortasun ikur nagusi diren euskara eta euskal kultura erasota eta zapalduta daude gizartearen ezezik hezkuntzan bertan ere. Eta eskola ez da bideratzen ikaslearen hezkuntza eskubideak errespetatu ditzen. Honen adibiderik esanguratsuena da oraindik XXI. mendean euskaldunok ez dugula geure mundu ikuskerara transmititu eta kultur adierazpide propioak biltzen duen curriculumik. Edo oraindik ere eskolak ez duela bermatzen euskara jakiteko eskubidea. Errealitate hau oso kontutan hartzekoa da eskola bizitzan gure parte hartzea zehazterakoan.

Zer ulertzen dugu “guri dagokigun kultura” gisa? Euskal kultura ez da lantzen gure eskoletan. Gure ikasleak ez dute lantzen orokorrean Euskal Herrian sorturiko adierazpide kulturalik. Eta ez jakitun dira. Kanpotik definitzen digute ikasleriak zer eta nola ikasi behar duen. Honi buelta emateko planteamendua egin behar da, gure kultura aintzat hartuko duen Euskal Curriculuma eraiki beharrean gaude. Honela bakarrik egon daiteke aukera formazio prozesuan “guri dagokigun kultura” lantzeko.

Eta zein dira gizartearen balore propioak? Balore horietan hezi behar al ditugu gure seme-alabak? Mundu globalizatu honetan gaurko gizarteak eta hezkuntza sistemak kaltegarriak diren balore asko indartzen dute. Balore hauekin injustiziaz beteriko gizarte birsortzen dugula iruditzen zait. Konpetibitatea eta ikaslearen arteko lehia da horietako bat, taldean lan egiten ikasteko oztopo handia dena. Balore horiek indartu behar al ditugu? Ala talde-lanean arituz, kritikotasuna landuz, norbera izaten ikasiz, jarrera parte hartzailea sustatuz,... gaurko injustiazko gizarte eraldatzeko oinarritzko



baloreak landu behar dituzte gure eskolek? Gurasook arreta jarri beharra dugu kontu honetan ere!

Hau guztia kontutan hartuta beraz, gurasook, eremu ezberdinetan gure seme-alaben eskola bizitzan parte hartze zuzena eta aktiboa izan behar dugu maila ezberdinetan.

Lehenik, parte hartze aktiboa etxeko alaba edo seme bere ikasketetan behar duen jarraipena eta babesa eman ez. Guztiok bete beharreko minimoak badira norbere seme edo alabari egin beharreko jarraipenaren inguruan: irakasleekin bilkurak, eskolako eguna, egunerokan euren etxeko lanengatik ardurua eta interesa adierazi...

Bigarrenik, konziente izan behar dugu edozein ikasle bere ikasketa prozesuan aurrera egiteko behar duen atentzioaz transmititzeko. Askotan, nahiz eta ikasten ari dena gurasook ez ulertu, garrantzitsuenak da gure aldetik beharrezko duten maitasuna eta babesa adieraztea eta ahalegin horretan beraiekin gaudela adieraztea. Euren ezintasunak entzuteak, animoz baxu daudenean animoak emateak,... eta ziurtatzeak ikasketa prozesuan zehar behar duten ahalegina egiten dutela, erabateko garrantzia hartzen dute. Azken batean, emozionalki gertu egotea lortu behar dugu.

Baina ez da honetan bukatzen gurasoon zeregina. Ikastetxe mailan ezinbesteko iruditzen zaigu gurasoak kolektibo bezala antolatzea eta eskolako irakasle eta langile guztiarekin batera era aktiboan eskolako bizitzan parte hartzea. Horretaz gain ikastetxe bizia lortu bidean bideratu beharreko lana egongo litzateke. Gainontzeko guraso eta langileekin batera, herri eta auzo bakoitzeko eskolaren hezkuntza proiektua egiten eta ekiten lan eginez antolatu beharrean gaude.

Bide honetan gaurko hezkuntza sistemaren hutsune azpimarragarriekin egingo dugu topo. Orduan ikastetxe mailako aldaketa batzuk bideratu beharrean gaude. Hauen lirateke nire ustez zeregin garrantzitsuenak, eta gurasoon parte hartzearen norabidea definitzen dutenak (Parte hartze hau beti ere eskolako beste estamentuekin batera, elkarren adostasuna lortuta bideratzea garrantzitsua da. Eskola komunitatea guztiok osatzen baitugu):

- **Eskola komunitateraen parte hartze aktiboa lortuz.** Horretarako guraso talde dinamikoak eta lan-

gilea lortu beharko genuke gure eskolan, lanerako go-goa duen jendearekin. Eta hurrengo belaunaldien etorkizuna eraikitzen ari garela sinisten duen jendearekin. Guraso talde honetaz gain, eskolako guraso guztien parte hartzerako marku egokiak planteatu beharko genituzke: guraso asanblada, gela-ordezkarien bilkura, gela bakoitzeko gurasoen bilkurak,... alternatiba interesgarriak izan daitezke eta informazioa eta erabakiak ikastetxeko guraso guztiengana heltzeko irtenbidea ere bai. Gurasoon mugimendu hau guztia ikastetxeko zuzendaritza talde eta irakasle klustroarekin hartu-emanekin jantzi beharrean izango gara. Eta baita Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen kasuan ikasle ordezkarik eta ikasle talde ezberdinekin harremana landu beharrean ere. Beti ere ikasleen formakuntza prozesurako lagungarriak diren erabaki propioak hartzeko ahalegina egingo dugu.

- **Ikastetxean pedagogia berritzailean esperientziak ezagutu eta praktikan jartzea bultzatuz.** Hau irakasleei dagokien eremua izanda ere, ongi dago erabiltzen den pedagogia gurasoon aldetik ere ezagutu eta eskolako irakasleak honetara animatu edo bultzatzea.
- **Ikastetxearen goitik beherako euskalduntzea lortuz.** Praktikan euskaraz bizi den eskola lortzea izango litzateke. Euskarazko murgiltze eredu ezarriz, ikastetxeko hizkuntza normalkuntzarako plangintzari abian jarritz, gurasoak euskalduntzeko guraso eskolak antolatuz, ikasleentzako euskarazko aisialdia ziurtatuz, kirola euskaraz,.....
- **Euskal Kulturaren hezten duen eskola landuz.** Umeak euskal kulturaren hezi, honetarako proiektu estrategikoak, Euskal Curriculum bezalakoak, ikastetxetik bultzatuz eta beraz eraikitzen parte hartuz. Gurasoon ikuspegitik ere badago eremu honetan zer ezagutu eta zer landu, nahiz eta lan nagusia irakasle esku geratuko den.

Honetaz gain, eskolaz gaindi arazo komunei irtenbidea bilatzeko lan iraunkorra ere ezinbestekoa da. Eskola sare eta proiektu ezberdinetan parte hartuz. Egungo hezkuntza Sistema antolatuta dagoen erak, aurretiaz azaldu dudana bezala, hutsune nabarmenak uzten ditu. Arrazoi honengatik gaurko administrazioak eskolari eskeintzen dizkion markuak ezin dira izan erreferentzia bakarrak (hezkuntza sailak, berritzaileak,...). Hauen askotan ikasle hezkuntza eskubideak errespetatzeko gaitasun falta nabaria izaten dute. Marku hauekin lotura izateaz gain ikastetxearentzat beharrezkoa da Euskal Herri osoko partaidetza bideratzen duten egitasmo eta hezkuntza markuak aintzat hartzea eta ahal den heinean, beravetan parte hartu eta bultzatzea. Une honetan edozein eskola publikorentzat interesgarriak iruditzen zaizkidan hezkuntza proiektu eta markuak ondorengoak izango lirateke:

- Sortzen-ikasbatuaz ikastetxe publikoen elkarteak. Eskola sare honetan parte har dezakegu: eskola bezala osorik, eskolako guraso talde bezala, irakasle klustro bezala, edo ikasle ordezkaritza bezala.
- Euskal Curriculum: eskolaz eskola eraikitzen ari den proiektua. Datorren kurtsuan Curriculum espezifikoa-

Pertsonak

ren eraikuntzan ikastexteek parte hartzeko aukera izango dute.

- Hezkuntza Akordioa: Akordioa hau estrategikoa da herri honetako edozein eskolarentzat. Egitasmo honetan hezkuntza sektore anitzen artean lorturiko adostasunarekin edozein eskolak bete behar dituen hezkuntza eskubideak zerrendatu dira eta publikotasunaren definizio propioa eta berria egin da. Eskola ezberdinen arteko aliantza garrantzitsua planteatzera dator.

Gure eskolatik egitasmo hauetan parte hartzeko indarra eginez iruditzen zait, sekulako mesedea egiten diogula etorkizuneko hezkuntza sistema berriari bai eta gaurko ikasleen formakuntzari ere. Beraz, guraso talde eta eragileok ere proiektu hauek indartu eta laguntzeko zeregina gure gain hartu behar dugula iruditzen zait.

Foroa

ESKOLA ETA FAMILIA: ELKARRI LAGUNTZEN DIOTEN BI INSTITUZIO

Loren Albéniz Ascorbe
Familia Zuendari Nagusia

Familien laguntzari eta adin txikiko en arreta eta babesari dagokion erantzukizunaren erabilera suposatzen duen behatoki handi horretatik, *Idea Escolar* aldizkariaren 26. zenbakiak garatzen duen gaiarekiko koherenteak izan daitezkeen zenbait hausnarketak egiteko aukera eskertu nahi dut.



Loren Albéniz Ascorbe

Eta pertsonok gizartean bizitzen eta horretan parte hartzen ikasteko dugun aukera handi biren inguruan hausnartzen egingo dut: FAMILIA ETA ESKOLA. Lehenengoa instituzio erdigunea eta oinarritzkoa da, baita gizarte garapen jasangarrirako berme absolutua ere eta Eskolaren hezkuntza akzioari gehien maite dituen lagunak, seme-alabak, konfiatzen ditu. Familia antolamenduarekin lotuta, Eskolak pertsonak ezagupenetan eta baloreetan prestatzeko eta gaitasuna emateko lanari jarraitutasuna ematen dio.

Azken urteotako literatura zientifikoak, baita zenbait diagnosi ikerketak ere, zeinetan Familiari Laguntzeko Plana oinarrituta dagoen eta Nafarroan familiei laguntzeko politika publikoen abiapuntua dena, beste batzuen artean hurrengo definizio eta funtzio hauek aipatzen ditu FAMILIARENTZAT; hurrengo horiek azpimarratuko ditugu:

Bukatzeko, hemen bota ditut eskoletan gurasoen parte hartzearen inguruan niretzako ezinbestekoak diren hainbat ideia eta proposamen. Ideia eta proposamen asko egunerokoan Sortzen Ikasbatuazeko ikastetxeetan praktikan jartzen saiatzen garenak dira. Kontutan hartu dut hezkuntzari dagokion eremu hau Euskal Herrian normalizatu gabea dela eta horrek gure erantzukizuna eta ardurak biderkatu egiten ditu. Baina herri normalizatua bagina ere eta larritasuna galduko balu ere, berdin jarraitzen dut pentsatzen beharrezkoa dela eskolaren funtzionamendu egokirako gurasoen eguneroko parte hartze aktibo hau. Zoriturrez gaur egun ikaslearen formazio prozesuan gurasoen joera nagusia da eskolaren baitan edo irakaslearen baitan ardurak delegatzea. Izango al gara gai guztion artean bai guraso, bai eskoletako langile eta ikasleen parte hartze maila aktibatu eta hain beharrezko ditugun aldaketak bideratzeko!!!

- “Familia lehen mailako gizarte talde nagusia da, zeinen barnean gizakien sozializazioa hasten den”
- Familian lehenengo harreman afektiboak eta gogorrenak gertatzen dira, ezinbestekoak direnak, bestetik, gizakiaren garapen harmoniatu eta orekaturako.
- “Familia dimentsio anitzeko errealitate bat da”
- “Familia, barruko izakia egituratzen duten artikulazioen dibertsitateko arkitektura gisa, hezkuntza da kimikoki egoera garbian. Gizartean eragin sakonenak sortzen dituen hezkuntza errealitatea da”
- “Familia hezkuntza afektiboko eta giza baloreen garapeneko lehenengo eskola eta iraunkorrena da, pertsonen heldutasunerako eta gizarte harremanen giza kalitaterako”
- “Familiaren hezkuntza funtzio honen produktibitatea, errentagarritasuna eta kostu ekonomikoa kalkulaezina eta ordezkaezina dira”
- “Garatzen dituen funtzio aniztasuna dela-eta, familia Gizarte Ongizatearen Ministeriorik onena dela esaten da”

Gogoratu behar ditugu, bestetik, aurreko XX. mendearen erditik eta Arau Esparru Nazionalan eta Nazioartekoan kokatzen diren eta indarrean dauden zenbait adierazpen juridiko; horietan FAMILIAREN babesaren inguruko kezka argi azaltzen da, gizartearen oinarritzko erdigunea izateagatik. Beste batzuen artean, hurrengo hauek aipatuko ditut: gure **Konstituzio** bera, **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala**, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpenean (16.3 artikulua) biltzen dena; **Gizarte, Ekonomia eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna (1966ko abenduaren 16ko 10. artikulua)**; 92/85 Europar Batasunaren Ministro Kontseiluen **Zuzentarauak**, urriaren 19koak, eta ekainaren 3ko 96/34koa, **azaroaren 5eko 39/1999 Estatu Legearen aldarrikapena eragin zutenak**, langileen familia eta lan bizitzak kontziliatzea sustatzeko edo **Haurren Eskubideen Ingaruko Konbentzioa**, familiaren funtzioa azpimarratzen eta aldarrikatzen duena haurren bizitzan zehar.

Familia bizikidetasunaren eszenatoki honetan aldaketa asko gertatzen ari dira aurreko mendearen azken hamarkadetik. Horiek harritu arren, instituzioarekin batera doaz familiaren jatorriak eta, anitzak eta gogorak izan arren, atera diren edo atera ahal diren lege edo aldaketa asko egon arren, eta aldaketa horiek askok sustatu edo gutxi sustatu arren, FAMILIA gizartearen erdigunea izaten jarraituko da eta gurasoak seme-alaben hezkuntzaren eta hazkuntzaren lehenengo arduradun nagusiak izaten jarraituko dira.

Aldaketa horiek gurasoen erantzukizunen benetako zereginetan disfuntzio asko sortzen dituzte, eta horietan, zalantzarik gabe, egungo gizarteak dituen arazo asko oinarritzen dira.

Disfuntzioak eskolan ere gertatzen dira. Esparru honetan, nire ikuspuntutik existitzen den jarduerarik erakargarriena, hau da, irakastearena, artikulatzen eta ezartzen zuen balore sistema desagertu egin da; diziplina onenak emanda dago eta IRAKASLEAREN autoritatea ez da balore bat. Testuinguru horretan gurasoek irakasleei pasatzen dizkieten hezkuntza erantzukizunak burutzea oso zaila izaten da, eta gurasoek irakasleei lagundu behar diete baldintzarik gabe.

Agian, gogoratu beharko genuke aita eta ama bakoitzak libreki hartu dutela bizitza proiektu komun bat, seme-alaben hezkuntza arduratsua ekartzen duena, seme-alaba horiek libreki ere ekarri dituztelako mundura.

Maisu eta maistra bakoitzak, bestetik, prestakuntza lan horri jarraitutasuna eman behar diote, gure seme-alabei gizarte bizitzeko aukera ematen duten ezagupen eta gizarte baloreen igorpenaren bitartez.

Beraz, Familia eta Eskola derrigorrez elkarri ulertu eta lagundu behar diotela pentsatzea logikoa ematen du. Ziur nago, egin behar den itun nagusia Familia eta Eskolaren artekoa da. Irakaskuntzarekiko bokazio argia eta definiturikoa duten gurasoak eta maisuak edo maistrak pertsonen bizitzan erreferentzia irudiak dira, oinarritzko ainguraketak dira. Haien dute gaitasuna, bakoitzak bere erantzukizun esparruan, identitate eta erantzukizun indibidualen kontzeptua sortzeko edo, hala badagokio, berrezartzeko. Laguntza hori oinarritzkoa da gure seme-alabei eman nahi diegun hezkuntzaren adostasunerako.

Gurasoak kontzientziatuta egotea ezinbestekoa da, seme-alabek ikasten duten zentroko tutore eta irakasleekin harremanak mantendu behar dituzte eta zentroan parte hartu behar dute, hezkuntza lanek gizarte bizitzan ikasten dugun balore iraunkorren eta zeharkakoen eragina izatea adosteko, baina batez ere bakoitza izatea adosteko. Ama edo aita bakoitza seme-alaben lehenengo hezitzaileak dira, sentimendu eta emozio mundu konplexu horretan eta horien kontrola, eskuzabaltasunaren praktika, adinaren arabera erantzukizunen burutzea, berdin arteko errespetua eta bizikidetasuna, etab.

Iraganeko altxorra duen Eskolan, orainaldiarekiko harremana eta etorkizuneko aukera, IRAKASLEAREN irudiak,

ezagupenak igortzen dituen bitartean sistematikoki baloreen hezkuntza eman ahal du: bizikidetasuna, solidaritatea, elkarren arteko errespetua eta erantzukizuna, esfortza eta bikaintasuna, batzuk aipatzearen. Eskola eta Familiaren arteko konplizitateak eta lankidetzak haurrei barruko trinkotasuna lortzeko aukera emango die, baloreen integrazioetik sortuta. Trinkotasun horrek, gizarteak zabaldu ahal dituen estimulu askoren eta anitzen aurrean, gehien komeni zaiena aztertzeko, hautatzeko eta erabakitzeak aukera emango die, egunero-egunero izaera eta bizitza proiektua garatzen joateko.

2005eko azaroaren amaieran, Frantzia sutan zegoen bitartean, Europako aditu ospetsu batzuek, esaterako Jean François Revelek, André Glucksmannek edo Nicolás Bavererek, edo aurretik, Gregorio Salvadorrek, Historiako Errege Akademiaren Erretoreordeak, bat egin zuten erlatibismoaren muturreko erari buruzko hausnarketei dagokienez, gure denboraldiaren ezaugarria dena, eta erantzukizunik ezaren zigorrak saihestearren beldur azaltzen ziren.

Víctor Franklek *“El hombre en busca de sentido”* liburuan, Auschwitz kontzentrazio esparruan egonaldiaren narrazio patetiko eta aldi berean ikaragarrian, giza existentziaren barruko funtsa arduratsu izateko gaitasunaren oinarritzen dela esaten du, eta Nietzscheren aipamen bat biltzen du **“Bizitzeko zergatia duena ia edozein modu jasateko prest dago”**. Bizitzeko bi oinarritzko ikasketak direla uste dut: erantzukizunaren zentzua eta hasieratik bakoitzak barneratu behar duen bizitza zentzua, aitarengandik, amarengandik eta, zalantzarik gabe, gure maisuengandik irakasten ditugunak. Begien bistakoa denez, Familiak eta Eskolak elkarri lagundu behar diote.

GURASOAK ETA ESKOLA: EZINBESTEKO LANKIDETZA

José Miguel Garbayo Villanueva
Aita (CONCAPA)

Legeek gurasoak eskola, ikastetxe edo irakaskuntza instituzioren funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea dugula onartzen dute, horietan zehazten den moduan. Onarturiko eskubide horiek guraso batzuek bakarrik erabiltzen dituzte, eta gehienetan



José Miguel Garbayo Villanueva

erabiltzeari uko egiten diote, bizitza akademikoari jaramonik egin gabe, hezkuntza prozesuan zehar seme-alabekin arazoak sortzen ez badira.

Gutariko batzuen ustez, eskola gure seme-alaben hezkuntzarako dugun beste tresna bat da, guraso edo tutore moduan dugun erantzukizuna. Horregatik eskolak zorroztasun akademikoko, zentzu etiko eta moraleko eta baloreen igorpeneko irizpide batzuk bete behar ditu, guk, guraso moduan, seme-alabei jakinarazten dizkiegunekin batera garriak izan behar direnak. Administrazioaren parte hartzea hezkuntza ereduak inposatuz kezkarriagoa da, eskolako funtzionamenduan gehiago edo gutxiago parte hartzea baino.

Gure seme-alaben guraso eta arduradun moduan, gure parte hartze nagusia hautaketa da, hau da, eredu hau edo bestea hori hautatzea, eta instituziotik aldatzeko aukera gure eskerekin bat ez etortzekotan.

Askotan, orokorrean estatuko hezkuntza antolamenduari ereduetatik eskola esturturen demokratizatzea saltzen da, eskola partaidetza panazea moduan, guraso-hezitzaileen benetako interes bakarra alde batera utzita, hau da, jakinarazi nahi dituen printzipio eta baloreekin bat datorren hezkuntza eredu hautatzea.

Gurasoek seme-alabentzako hezkuntza zentro egokia behin hautatuta, zentroarekiko harremanak sinplifikatzen dira, hezkuntza proiektua eta funtzionamendu sistema onartu behar direlako, eta horretan gurasoen rola definituta egon behar da, hau da, gure seme-alaben irakasleak diren hezitzaileei partzialki laguntzea zentroko ideietan eta curriculumetan agertzen diren ezagupen teknikoak, giza baloreak eta gizarte harremanetarako sistemak jakinarazten.

Eskolan eta etxean jasotakoaren artean koherentzia hausteak gertatzen badira, gure seme-alaben hezkuntzan ere hausteak gertatuko dira, eta horregatik gurasoek kontu handiz ibili behar dugu partaidetza eta arrazoa ez nahasteko. Nire ustez hezkuntza esparruan arrazoa ez da demokratikoa, eta gure seme-alabak eskolan egoten diren bitartean gure autoritatea hezitzaileen esku gelditzen dela onartu behar dugu, eta horiek ezarri behar dituztela erabakiak, eta guk horiek onartu behar ditugula. Hori da gure benetako partaidetza seme-alaben hezkuntza prozesuan eskolan. Hori da gure zeregin handiena eta zentro hori, eskola hori, ikastetxe hori hautatzeko helburua.

“Ez dago hezkuntzarik jakinarazteko egirik ez badago, dena egia bada gutxi gorabehera, bakoitzak egi errespetagarri bat badu eta hainbeste dibertsitatearen artean arrazionalki erabakitzea ezinezkoa bada” . Fernando Savater.

Guk aukeraturiko lekuan seme-alabak eskolatu direnean, zentroarekiko harremana lankidetzan eta eskaeran oinarrituko da, hezitzaileekiko lankidetzan eta zentroko ideiak betetzeko eskaerak.

Eskola esparruan parte hartzeak jarrera desberdinak sortu behar ditu: irakasleen autoritatea errespetatzea eta horri laguntzea, zentroak eskainitako ideia eta baldintzen betetzea eskatzea, etxe eta eskolaren arteko hezkuntza



koherentzia mantentzea eta errespetua sustatzea pertsonen arteko esparru moduan.

Alexis Carrel Nobel sariaren esaldi batekin bukatu nahiko nuke, *“Haurrak handizka heztea ezinezkoa da, eskola ezin da hezkuntza indibidualaren ordezkaria izan”*. Gurasoen eta eskolaren arteko lankidetzatik bakarrik benetako hezkuntza posiblea izango da.

ESKOLA ETA FAMILIAREN ARTEKO ERRESPETUA ETA KONFIANTZA

Ana García Paniego
Ama (Herrikoa)

Nire lehenengo semea eskolan sartu nuenean momentu horretatik nire hezitzailearen rola beste batzuen esku uzten nuela eta dena errazagoa izango zela inuzenteki pentsatu nuela gogoratzen dut. Baina egia esanda, momentu horretatik zure seme-alaben hezkuntza eskola bizitzan zehar izango dituen maisu-maistreakin konpartitzen duzu. Eskolan lagun asko egingo ditu eta kezka gehienak sortuko dira.



Ana García Paniego

Horregatik, gure seme-alaben eskola munduak eta familiarik batera aurrera egin behar dute eta kontraesanik gabe. **Eskola eta familiararen arteko errespetua eta konfiantza** funtzionamendu egokiaren oinarriak dira.

Orain irakasle eta gurasoen arteko harremana hurbilagoa da. Baina hobekuntza hori gertatu arren, geletan gatazkak sortzen dira, konpontzeko zailak izaten direnak, nahiz eta hasieratik guztion lankidetzaren bitartez horiek

moztea askoz errazagoa izan. Zer gertatzen da? Lankidetzaz falta dago guraso eta eskola munduaren artean? Nola parte hartzen dugu?

Zenbait guraso kezkatuta daude eta lan erritmoak eta eskola ikasteak biltzen dituzte, hau da, hor daude. Beste batzuek, oraindik aktiboagoak direnek, eskolako funtzionamenduaren zokoetan lankidetzaz eskaintzen dute, guraso elkarteetatik, eskola kontseiluetatik... oso inplikaturik daude. Baina beste batzuk ez daude, edo okerragoa dena, parte hartzen dutenean ez da seme-alabekin edo ikasketa prozesuarekin arduraturik daudelako, baizik eta arauak inposatzeko. Guraso horiek gehiegi babesten dituzte seme-alabak. Seme-alabei ezin zaizkie zigorrak jarri eskolan, haiek etxean jartzen ez dizkietelako. Zentroko langileen zuzenketak eskatzen dituzte (modu onean edo txarrean), baina seme-alaben jarrera aztertu gabe. Portaera horrek irakasleen lana gutxiesten du, autoritatea gutxitzen du eta ikasleei harrotzeko aukera ematen die.

Eskolatzeak seme-alaben banakotasunaren eta eskola komunitatearen arteko lehenengo tala sortzen du, hor beste ikasle bat delako, arau batzuk bete behar dituena. Gehiegi babesteak banakotasuna azpimarratzen du eta taldearen aurrean indarrak gabe uzten dio. Jarrera horrekin umeak defentsarik gabe gelditzen dira, edo bizitzan mugitzeko eta gatazkak konpontzen ikasteko errekursorik gabe. Gurasoek ez dute parte hartu behar gure seme-alabak irakasleengandik edo beste ikasleengandik urruntzeko.

Autoritate galera horrek diziplinarik eza sortzen du geletan, eta horren errudunak guztiok gara, eta noski ondorioak etorkizunean etorriko dira. Ikasle lotsagabe horiek, irakasle eta beste ikasleekin errespeturik ez dutenak etorkizuneko langileak izango dira, eguneroko bizitzan erabiliko dugun edozein erakundetan, komertzioetan edo zerbitzutan egongo direnak. Erantzukizunak jasotzeko prestakuntza gutxiko helduak izango dira.

Askotan eskolak ere ikasleen arteko indibidualismoari eta lehiakortasunari laguntzen dio, eta haien arteko lankidetzaz gehiago landu behar dela uste dut.

Gure gizartearen irakasleek eskolan irakasteko gurasoen laguntza eta konfiantza derrigorrez izan behar dutela uste dut. Langileek informatu behar dute eta gurasoekin batera lan egin behar dute, eta noski guk prest egon behar dugu, gatazka asko modu horretan minimizatuko liratekeelako. Hau guztia oso positiboa da ikasleentzat. Ez da gurasoek ikastaroaren jarduerak edo helburuak zuzentzea, ezta irakasleek gurasoen esku dena uztea. Gurasoek irakasleen profesionaltasunean konfiantza izan behar dugu, eta horrek ez du esanahi gauza batzuk zalantzan jartzea ezinezkoa denik.

Eskolan umeak daude eta pertsonak dira, eta horiek ez dira berdin estimulatu edo ez dute berdin erantzuten, eta horrek ezarritako planean aldaketak sartzeko beharra sortu ahal izango du. **Baina kooperatu behar da, enpatizatu behar da eta indarrak koordinatu behar dira.** Guztiok ikasleei lagundu behar die-

gu, haiek direlako ikasten dutenak, eta orainerako eta etorkizunerako prestakuntza jasotzen dutenak. **Irakasleek gurasoen laguntza izan behar dute** eta noski, errespetu hori irabazi behar dute, modu horretan, seme-alaben errespetua izango dute, hau da, ikasleena

Eta hau guztia, gure **seme-alabek**, hau da, ikasleak **lanaren arduradunak** izan behar direla ahaztu gabe, bai lorpenenak bai akatsenak.

Gizarte kontsumitzaile batean bizi gara, eta horrek familia askoren bizitza markatzen du. Seme-alaba gutxiago dago, baina diru gehiago eta gure seme-alabak hezteko denbora gutxi dugunez, gabetasun hori sari eta opariren bitartez betetzen dugu, mereziak izanda edo ez. Nire ustez, arazoa permitibitate horretan dago, gure seme-alaben hezkuntzan askotan erabiltzen duguna.

Nola egingo diote aurre bizitzari gure seme-alabek mugak jartzen ez badizkiegu et arduratsuk izaten irakasten ez badiegu? Gure seme-alabei ematen dieguna eskatzen dieguna baino gehiago izaten da, eta guztiok dakigu esfortzurik gabe lortzen dena ez dela baloratzen. Horrek neska-mutil apatatsu, arduragabe, berekoi eta desmotibatuak sortuko ditu, ezer eman barik eskatu egingo dutenak.

Lehendabizi gurasoek eta bigarrenaz irakasleek akatsen ondorioak onartzen irakasten behar diegu, baita **esfortzua baloratzen** ere, hori delako hezkuntzaren oinarria eta etorkizunerako prestakuntza dituen. Ekintza txarrek zigorra eragiten dute eta ekintza onek, saria. Gure seme-alabak azkarrak dira, eta badakite noiz merezi duten onarpena edo zigorra. Baina esfortzuen eta lorpenen onarpena ere behar dute (ez, berriz, gure itxaropenen arabera horiek neurtzea).

Berdin da zigorra edo saria irakasleek edo gurasoek jartzeari, biek errespetatu behar dute. Gure seme-alaben aurrean ez diegu sinesgarritasuna kendu behar irakasleei; era berean, gurasoek ez genduz onartuko seme-alabei txarto hitz egitea gutaz. Errespetuz jokatu behar dugu berdin-berdin eta enpatia gehiago erabili, gure seme-alaben onerako.

Gurasoek haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora ikasten ematea ona dela jakinarazi behar diegu seme-alabei.

HORRETAN GAUDE

Gerardo Castillo Mtez-Olkoz
Aita (SORTZEN-Ikasbatuaz)

Errepaso labur bat egiten badut, gure seme-alaben hezkuntzan agertu diren aldi eta elementuen berri izaten dut:

- Lehenengo hilabeteak. Batetik, erreakzioen aurrean sortzen den maitasuna eta emozioa; ukitzen duzu, begiratzen diozu, berarekin hitz egiten duzu, garbitzen duzu, janaria ematen diozu. Bestetik, urteak irauango dituen borroka hasten da zeure buruarekin:

zure ordutegia bere beharren menpe egongo da, ez zure nahien menpe. Eta arazoa handitzen bat baino gehiago izatekotan.

- Ondoren, haserraldien aurka borrokatzea, mugak ezartzera. Pixa eta kakaren kontrola. Jostailuak jasotzera behartu eta horretarako lagundu. Bakarrik janzten irakatsi, jaten dugun bitartean mahaitik ez altxatzeko. Denatarik jateko ohitura har dezaten.
- Ondoren, etxean erantzukizunak ematen hasi: erosketak txikiak, ohea egin, astero etxea garbitzen lagundu
- Haiekin zinemara joan, parkean eta patioan orduak eman...
- Nerabezaroaren beharren aurka egin, zalantzak, aldaketak, lagunaren beharra eta gugandik urruntzeko beharra (gurasoengandik)...
- Eta beti komunikatzeko aukera eman: elkarrekin egoteko une bat egunero kontserbatuz: bazkarian edo afarian. Isiltasuna, ideiak, sentimenduak eta esperientziak konpartitzeko, gauzak erabakitzeko, negoziatzeko.

Hau guztia arazorik gabe. Baina beti agertzen dira zailtasunak: gaixotasunak, tutorearekin egotea zenbait arazorengatik...

Eta erreza ez den gizarte testuinguru batean. Eta gurasoei ez dakit nork laguntzen digun. Lan ordutegiek eta baldintzek ez diote lan eta familia bizitzaren bat etortzeari laguntzen, telebistako serietan agertzen diren baloreak ez datoz bat gure osasun eta heldutasun irizpideekin askotan, eta beste helduek gure seme-alabei mugak ezartzen oso gutxi laguntzen digute, eta badirudi umeei bat egiten dutela (bai, erosi, bat baino ez da...). Babesik ezaren aurrean energia gehiago erabiltzea baino ez daukagu.

Eta gainera, eskolan partaidetza. Batzuetan sobran gaudela sentitzen dugu. Gehienez, behatzaileak garela uste dugu, kanpotik. Eskola Kontseiluan askotan gutxi edo oso gutxi egin ahal dugu (besteak beste, bilera asko lan ordutegian zehar egiten direlako). Badirudi irakasleek ez dutela gurasoen beharra: bakarrik arazoak agertzen direnean deitzen digute. Badirudi eskatzen diguten funtzio bakarra irakasteekiko seme-alaba hartzaileak hezteko dela. Bestetik, noski, GEk kolaboratzen duenean (eta gustura) Zentroko jarduerari lagunduz edo Administrazioaren aurrean egindako aldarrikapenekin (egin beharreko lanak, baliabide gehiago...)



Gerardo Castillo Mitez-Olcoz

Eskolak erronka eta arazo asko ditu. Bereziki DBHn. Oso testuinguru zail batean, derrigorrezko hezkuntza hamasei urtera arte luzatu delako eta etorkinen harreragatik. Eta horrela ikusten ditugu askotan irakasleak, agobiatuta, eta askotan guri leporatzen digute zailtasunen erantzukizuna: familiok ez dugu hezkuntza egokia ematen eta horregatik sortzen dira arazo asko zentroetan, esaterako diziplina. Administrazioak eskaera horrekin bat egiten duela ematen du, ahalegin eta errespetu gutxiarekiko seme-alabak hezten ditugula esanez.

Irakasleen eta hezkuntza administrazioaren pentsamenduetan, batez ere DBHn, familia eta eskolaren arteko erantzukizuna modu horretan banatzen dela ematen du:

- Eskolak ezagupen sail desberdinetako ezagupen tekniko eta instrumentalak eman behar ditu;
- Familia gure gizarte eta kulturaren baloreetan hezteko arduraduna da, sentimenduen mundua garatzeko eta heltzeko arduraduna, eta bizikidetasunerako oinarri finkoak markatzeko arduraduna: pertsona eta gauzekiko errespetua, elkarriketa, arauen hartzea.

Baina banaketa hau ez da benetakoa; eta berdin gertatzen da gurasook dena eskolaren esku utzi nahi dugunean edo irakasle guztiak perfektuak direla amets egiten dugunean, gure seme-alabengandik onena ateratzen dutenak eta diziplina eta gatazkak behar bezala kudeatzen dituenak.

Nire irakasle batek oso txarto azaltzen zuen eta oso desatsegina zen. Oso justu gainditu nuen eta ikasgai hori ez zitzaidan inoiz gustatu. Hezkuntza harremana delako. Eta horren emaitzak askotan irakasleen eta ikasleen artean ezartzen diren erlazioen menpe daude. Hau da, etxean bezala, seme-alabekin dituzun harremanen arabera errazagoa edo zailagoa izango da mugak ezartzea, negoziatzea, etab. Hau da, azken finean, gurasoek eta irakasleek komunean duguna.

Nire seme-alaben derrigorrezko bigarren hezkuntzako zentroan batzorde bat sortu zen eskola bizikidetasunaren errealitateari buruzko diagnosiaren beharrezkoak, eta hori hobetzeko zer zen beharrezkoa aztertzeko. Hiru talde antolatu ziren, bereizita, irakasleak, gurasoak eta ikasleak. Momentuz, argi dago komunikazio bideak ezartzea ezinbestekoa dela, batzuen eta besteen ikuspuntuak eta diskurtsoak desberdinak direlako; ez datoz bat. Eta horretan gaude.

Eta administrazioak ere ezin du ahaztu irakasleei egindako eskaeren bitartez denbora kentzen diela elkartzeko, programei buruz eta ikasleekiko harremanei buruz hitz egiteko. Badirudi garrantzitsuena edukiak direla eta irakasle indibidualizatuaren irudia zabaltzen da, zeinen helburu nagusia ikasgaia irakastea den. DBH batxilergo bihurtzen hasi da, ikasi beharreko edukiei garrantzi handia ematen zaielako eta ez ditu giza edo materia baliabideak jartzen zailtasunak dituztenen prozesuei bermekin aurre egiteko. Eta beste hezkuntza jarduerari batzuei ere garrantzia kentzen zaie, esaterako txangoak, kanpamenduak, jaiak (Gabonak edo Inauteriak) eta tutoretza espazioak.

Foroa

Ez gara inora helduko errua beste batzuei leporatuz. Gure gurasoen zailtasunen inguruan hitz egin dut eta etxean energia gehiago erabiltzea baino ez zaigula gelditzen

Ikasgela

GURASOEN PARTAIDETZA ETA PRESTAKUNTZA HEZKUNTA ZENTROAN

Andrés Jiménez Abad

Pedagogoa Iruñako Basoko BHIko Filosofia Katedraduna

Familia bere horretan da bertako kide direnak heztearen aldeko inguru egokia. Familia osasuntsuan, batuan eta inguruko beharretara irekita bizi denean hezten den haur edo gaztea gai izango da bizitzak ekarriko dizkion zailtasunak gainditzeko energia garatzeko, familiako kideak osotasunera eta heldutasunaren askatasunera eramanez. Familia, Estatua eta ikastetxe baino lehen, pertsonak norbanako eta gizarte moduan izango duten identitatea eraikitzen den ingurua da.



Andrés Jiménez Abad

Hori dela eta, ulertuko da presazkoa izatea familiak dagokion erantzukizuna gain hartzea ikaskuntzaren lehengo gune izateagatik, hezkuntzaren alorreko beste agente batzuen eskuetan haiei ez dagozkien eginbehar eta funtzioak utzi gabe. Noski, familiek ere laguntza jasotzeko eskubide osoa dute heziketa funtzio horretan.

Aitzitik, aldi berean, familiak ez dira eskolaren heziketa jardueraren gertuko hartzaile, baizik eta heziketa horren eraginkortasuna baldintzatzen duten agenteak. Eskolak bakarrik, familien laguntzarik gabe, emaitza kaskarrak lortuko ditu bi instituzioek elkarren ondoan aritzean lortuko lituzketenen aldean.

Nerabeen prestakuntza gizakoia

Nerabeen kasuan bereziki, familiek eta ikastetxeek oso argi izan behar dute lankidetzaren bideratzeko modua, heldutasunerako bidearen une zehatzean daudelako eta haien hezkuntzan eta jarreran familiaren kanpoko inguruabarrek paper garrantzitsua izan ohi dutelako.

Javier Elzo soziologoak, gazte eta nerabe espainiarrek (15 eta 24 urte bitarte) munduari buruz duten ikuspegira hurbilduz, bereziki interesgarriak diren ondorio batzuk azpimarratzen ditu beste askoren artean, gurasoek ikastetxeetan parte hartzearen komenigarritasuna argitzeko:

uste dut. Irakasleak... ba berdin. Eta Administrazioa, baliabide eta laguntza gehiago.

- Gurasoak ez dira inoiz orain bezala eskatu, deitu eta erruduntzat jo seme-alaben heziketan. Kanpotik datozen presio handia jasan behar dute.
- Seme-alabak eskubideak dituzten gizakiak direla onartzen dien testuinguru sozial eta kulturean hazi dira, gurasoek haiekiko betebeharrak dituztela onartzen den bitartean. Seme-alabak horrenbeste begiratu, aztertu, ikertu eta babestearen ondorioz, helduek egindako idulkian kokatu dira.
- Seme-alabak gizartera egokitzeko, hobeak dira bizi-zako jarrerak hitzaldi ideologikoak baino, eta horixe da gazteek eskatzen dutena.
- 'Balioak helarazteko praktika burutsua' galdu egin da familiaren baitan, eta horrek azaldu egiten du balio horiek denboran onartutako jokabide egonkorretan aldatzeko zailtasuna.¹

Testuinguruak ematen duen errealitate horri erantzunak ematea ez da erraza edo lorgarria, familiak bere kabuz esfortzua egiten badu bakarrik; izan ere, askotan ez du egoerari aurre egiteko behar beste baliabide. Egun, irakasleek eta familiek elkarren beharra dute hezkuntzan aurrera egiteko, kasu askotan inguratzen gaituen munduaren kontra egin beharko dutelako.

Gurasoen presentzia bideratu eta horren alde egin

Hezkuntzaren garaiak ez luke bere horretan zertan izan gurasoen parte-hartze mailaren aldagai erabakigarria, ikastetxean azaltzen diren antolamendu eta jarrera aldagaien multzoa baizik. Esate baterako, hezkuntza proiektu baten buru izateko gai den taldea, ikastetxean parte hartzeko kultura sustatuz. Garrantzitsua da gurasoei jarduera zehatz eta egokietan parte hartzeko bideak eskaintzea eta horiek arintzea, bakoitzak bere interesen, gaitasunen eta ahalmenaren arabera. Aldi berean, prestakuntza prozesuaren ezinbesteko pieza direla sentitu behar dute, nolabait.

Seme-alabengan erabateko eragina du gurasoen eta irakasleen arteko harremanak. Gurasoak eskolara doaz direnarekin, beren kezka eta defentsa mekanismoekin. Haiek ere beren bizipena eta bizitzaren gaineko teoria dituzte. Batzuen eta besteen arteko harremana oso eremu konplikatuan sartzen da, oso eremu hauskorrean, eta bertan gauzak esateko modua topatzen jakin behar da.

Gardentasunari eta informazioari esker, posible da familiaren eta ikastetxearen artean elkarrenganako konfiantza izatea, lankidetzaren oinarriak jarritz. Gurasoek ikastetxean parte hartzea sustatzen duen zuzendaritza

¹ Elzo, J. (2000): El silencio de los adolescentes: lo que no cuentan a sus padres. Temas de Hoy, Madrid.



ezinbestekoa da parte-hartze hori egokia eta eraginkorra izateko. Ikastetxeen barne eta kanpo ebaluazioak hezkuntza komunitatearen sektore guztiak harrapatzen ditu; hartzaile moduan izan behar ditu familiak bereziki, bai eskola kontseiluaren bidez, bai guraso elkarten bidez, bai zuzenean.

Familiak eskubidea dute ikastetxeko martxaren eta kalifikazioen gaineko argibide egokiak eskuratzeko, ikastetxearen aldetik seme-alaben heziketa morala ulertzeko moduari errespetua zaiola ikusteko bezalaxe, eta, horrekin batera, irakaslearen jardunbide profesionala defendatzeko betebeharra du.

Gurasoen eta irakasleen arteko elkarriketak oso garrantzitsuak dira. Batez ere tutorearekin izan ohi diren horiek. Ona da irakasleok etengabe ikaslearen, seme-alaben, gaineko kexuak ez adieraztea, eta “zalan-tzak ditugula” esatea horren ordez, gurasoak bezain kezaturik gaudela eta xedetzat haien hobe beharra dugula jakinaraztea. Garrantzitsua da beti eskua luzaturik izatea. Hezitzaile moduan, beharrezkoa da nolabaiteko empatia ahalmena izatea, bestearen tokian jartzen jakitea, jarrera harbera, ulerkorra, tolerantzia eta eustekoa azalduz. Zuzeneko gatazka okerra da beti, mundu guztia-erentzat.

Gurasoen prestakuntza ikastetxean

Geroz eta beharrezkoagotzat jotzen da gurasoak ikastetxera joatea **prestatuntza** jasotzera heziketan duten lanean, bai familiaren alor zehatzean, bai ikastetxeko lan eta kudeaketan parte-hartze ahalik eta eraginkorrena egiteko moduan. Guraso askorentzat bereziki garrantzitsua da nerabezaroko adinaren garaia, eta adierazitako prestatuntza nolabaiteko lehentasunarekin bideratu beharko litzateke gai horretara. Izan ere, garai horretan izaera, adimen emozionala, pixkanakako autonomia eta erantzukizunak eta askatasuna gain hartzen dira, eta horrek hezitzaileek, gurasoek eta irakasleek elkarri ematen dioten informazioa eta babesa areagotzea eskatzen du.

Ikastetxeetan **guraso eskolei** ekiten bazaie, xedea familiengan prestatzeko behararen kontzientzia sortzea izango da, horretarako informazioa ez ezik parte-hartzea eta animazioa ere erabiliz. Helburua heziketan agente prestatu bihurtzea da, ikastetxean modu egokian

laguntzeko gai izanez eta izpiritu hori beste guraso batzuei helaraziz.

Garrantzitsua horretarako gurasoen etengabeko prestatuntzarekiko sentsibilitatearen alde egitea da ikastetxe bakoitzaren barruan, hezitzaileak direlako. Hortik, ikastetxea osotasunean *gurasoentzako* eskola ere badela ulertu beharko litzateke, nolabait.

Esparru legalak eskubideak eta betebeharrak betetzeko baldintzak ezarri eta erraz ditzake neurri handiago edo txikiagoan. Aitzitik, norberak dituen erantzukizunak gain hartzea pertsonen asmoen ondorio da. Eta hezkuntza sisteman parte hartu eta bertan egoteko derrigorrezko bideetako bat isolamendutik eta atomismotik ateratzea da, elkarketa aktiboaren bidetik ibiliz.

HAUR-ESKOLAN PARTE HARTZEKO MODUA

Belén Jiménez Bardina eskutik
Larragako IPren Haur Hezkuntzako Irakaslea

Eskolan, Familian gertatzen den bezala, haurren ikuspuntu sozializatzailea gero eta adin goiztiarragoan definitzen da.



Belén Jiménez Bardina

Garaiak aldatu egin dira, baita gizartea ere. Orain dela urte batzuk Familia haurren eragile sozializa-

tzaile nagusia zen, baina gaur egun, Eskolak garrantzi handia du haurren garapen afektiboari, kognitiboari eta sozialari nahiz balioen komunikazioari begira ere. Emakumea lan munduan murgiltzea, guraso bakarreko familiak eta haurrek familiaren barruan bizitzeko dituzten modu ezberdinak kontuan izanda, haurrak eskolan txikitatik parte hartuko du eta denbora luzeagoan iraungo du. Hala ere, prestatuntzaren eta garapenaren gaineko erantzukizuna ez da soilik eskolaren esku geratu behar.

Familiaren ustez, eskolak bakarrik ez du haurren gaineko erantzukizuna, eta eskolak ez du hezkuntza eskaini behar familia baztertuta. Bi erakundeen artean lotura estua egon behar da haurrak behar bezala hazi eta pertsonak gisa garatzeko xedearrekin.

Familia bakoitzak bere haurrentzako ikastetxea aukeratu du idealen, balioen eta hezkuntza-helburuen arabera. Guraso zareten aldetik zuen buruei galdera hau egingo diozue: **“Nola hezi behar ditugu gure seme-alabak?”**. Erantzunak zuen igurikimenak betetzen ez baditu, disfuntzionalitate handia agerian utziko du.

Ikasgela

Hezkuntza-prozesuan funtsezkoa da gurasoen eta irakasleen artean konfiantza egonkorra egotea. Izan ere, eskola familiaren luzapena da. Gurasoek irakaskuntza-zereginari begira jarrera positiboa, konfiantza eta eskolan segurtasuna erakusten badute, haurrek seguru dagoela sentituko du. Beraz, ezinbestekoa da hezkuntzaren gaineko bi ardura-dun horien artean koordinazio egokia egotea.

Irakasleek, gero eta maizago, gurasoek eskolan parte hartzea, lankidetzan jardutea eta komunikatzea eskatzen dute. Gurasoek haurren ikaskuntza-prozesuan parte-hartze handia izaten badute, orduan hezkuntza-prozesuaren arrakasta ere esanguratsua izango da. Hori dela eta, haurren nortasuna garatu ahal izateko, hezkuntza-proiektuan ere erantzukizuna partekatuta egon behar da. Erantzukizun hori modu aktiboan eta parte-hartzailean garatzen da, bai haurren eguneroko bizitzan, bai ikastetxearen eguneroko funtzionamenduan. Garrantzitsua da familiak eskolako kide izatea eta eskola euren izango balitz bezala jardutea.

Gaur egun, Larragako eskolan gurasoak euren seme-alaben hezkuntza-prozesuaren protagonista nagusiak dira, eta, hainbat baliabideren bidez, seme-alaben banakako nahiz taldeko prozesuan lankidetzan jarduten dute. Haurrek lankidetzara hori asko estimatzen dute eta oso garrantzitsua da euren nortasuna bizitzaren garai goiztiar horietan sendotzeko.

Horrez gain, Familiaren eta Eskolaren nahiz Irakasleen eta Gurasoen artean komunikazio ona egon behar da, dela ordena formalean dela ordena informalean. Irakaskuntza eskaini den Haur Hezkuntzako 2. zikloaren kasuan, familiarekin dagoen komunikazioa informala da, ikastetxeko sarrera- edo irteera-unean, hain zuzen. Hala ere, funtsezkoa da komunikazio hori errespetuarekin, lasaitasunarekin eta konfiantzarekin egitea. Izatez, horrek guztiak haurren eta gurasoen gain eragin nabarmena du, bereziki, 3 urteko haurren egokitzapen-prozesuan. Guztiok haurrei harrera adeitsua, lasaia eta konfiantzaz beterikoa eskaini behar diegu, euren bizitzaren etapa berriaren segurtasuna sustatu dadin.

Bada, haurrentzat oso positiboa da komunikazioa modu leialean eta bi alderdien borondatez egitea. Tutorearen eta gurasoen arteko komunikazio egokia oinarritzakoa da haurren bilakaera-prozesua aurrera eramateko. Hona hemen baliabide formalak:

- Hasierako elkarrizketa
- Banakako elkarrizketak
- Hiruhileko txostenak

Gisa berean, ikasturteko bileretara ekarritako informazio orokorrak erabili daitezke.

Gurasoen eskola beste aukera bat da eskolaren eremura hurbiltzeko. Ikastetxeetan, familien intereseko gaien eta euren seme-alaben hezkuntzarekin zerikusia duten hitzaldiak eskaintzen dira.

Goian aipatutakoa gorabehera, haurra protagonista gisa sentituko da bere aitak, amak edo bere familiako beste ki-

de batek ikasgelan berarekin lanean modu aktiboan jarduten duenean. Nire ustez, une hori oso garrantzitsua da haurren autoestimua garatu, nortasuna indartu eta ikaskuntza-prozesua aurrera eramateko. Haurra POZIK dago eta ikaskuntza hori ez du ahaztuko.

Lankidetzara modu ezberdinetan eskaini daiteke. Haur Hezkuntzako ikasgelan, behintzat, pedagogia berriek erakutsi duten esperientziak hala baieztatzen du. Gurasoek lankidetzan modu hauetan jardun dezakete: ikasgelako jarduerarekin zerikusia duen ipuina edo prentsa-ebakina ekar dezakete, informazio interesgarria bilatu dezakete, eta, ahal den neurrian eta denbora badago, ikasgelan gaia ulertzeko eta aztertzeko erakuntza-lanak egin ditzakete. Tutoreak definitutako metodologiak baliatuta, gurasoek tailerretan parte hartzen dute. Hain zuzen ere, prestakuntza-prozesuan elkar ezagutu eta elkarrekin lan egiteko aukera aparta da. Gurasoak ikasgelan noizean behin agertzen bada, prestakuntza-egoera aberasgarriak eragingo ditu.

Amaitzeko, Familiak eta Eskolak konpromiso hezitzaile osoari begira duten erantzukizuna gogoratu behar dut, hots, lankidetzara, komunikazioa eta konfiantza oinarri dituen hezkuntzaren proiektu erkideari eta koherenteari begira

SEME-ALABEN HEZKUNTZAREN INGURUKO ESKUBIDEAK ETA BEHARRAK

Alberto Cascante Díaz

Irabia ikastetxeko Maisua eta Pedagogoa

Orain dela urte batzuk, LOGSE onartu zenean, gurasoen partaide-tzaren arautzea eta zabaltzea helburu onenatarikoen artean aipatzen zen.

Teorian, bai, positiboa zen. Hala ere, praktikan, guraso askok foro horietan parte hartzeko sentitzen

duten interesik eza ezaguna da, badakigu erantzun gutxi sortzen dutela eta eskola bizitzan sortzen duten eragin eskasa nabarmena da. Gutxi batzuk ausartzen dira, gehienetan, arazo eta buruhausteak bakarrik sortzen dituen desinteresaturiko zerbitzu publiko honetan sartzen.

Modu horretan, familia askok ez dute eskola erabiltzen ko-hezitzaile moduan, baizik eta bezero edo kontsumitzaile moduan. Eskatzen, salatzen edo aldarrikatzen dute, baina ez dute parte hartzen.



Alberto Cascante Díaz

Ikasgela

Errealitate horren aurrean, eskolak aparkaleku bat izango balitz bezala funtzionatzen du. Gogoratu beharra dago gurasoek lehenetsuneko eskubidea dutela seme-alabak hezteko orduan, eta normala denez, eskubide horrek betebeharrak batzuk sortzen ditu.

Seme-alabek egiten dutenaren erantzukizuna gurasoena da, haiek ez dutelako erabakitzen mundu horretara etortzea eta urte batzuetan zehar erabakiak hartzeko gaitasunik ez dutelako heldutasunik eza dela-eta. Horregatik, bizitza berria sortzeko orduan gurasoek hartu behar duten erantzuna horien prestakuntza osoa zaintzearena da, eta lan horien barruan hezkuntza zentroaren hautaketa dago, euren bizitza eta balore proiektuarekin bat etorri beharko dena.

Atapuerca garaietan hausnarketa horrek ez zeukan zentzurik, familiak ondorengoak prestatzen baitzuten bizi-erapena bermatzeko. Kanpoko esku hartzeak ez ziren beharrezkoak, familia bakoitzak seme-alabak hezten zutelako: eskola etxea zen.

Baina ezagupenak handitzen direnean eta kultura konplexuago bihurtzen denean, gurasoak gainezkatuta sentitzen dira eta ez dira eurak bakarrik hezteko gai. Denbora eta prestakuntza falta dute. Osotasunean garatzeko eta hazteko ikaskuntza beharrezkoak osatzeko beste pertsona batzuk erabili behar dituzte.

Horren ondorioz, hezkuntza maisu-maistrekin konpartitzen da. Autoritatea haien esku uzten da, gurasoen ordezkari jarduteko baimena ematen zaie eta didaktiko, tekniko eta gizatiarrari dagokienez txikiak hezteko prest dauden pertsonak direnez hezteko boterea ematen zaie.

Baina, eskola erabiltzeak ez du eragiten gurasoen zereginei uko egitea. Kontrara, haiek dira oinarrizko erreferentea hazkunde afektiboari eta baloreei dagokienez, eta maisu-maistrei emaitzak eskatu behar izan arren, haien zeregina ez da bakarrik eskolan egiten dena zaintzea, eta ez dira hortik urrundu behar eta umeak eskolan utzi autoa baterian aparkatzen duenak egiten duen bezala.

Benetan, estatistiketan behin eta berriro eskola hautatzeko orduan gehien erabiltzen den irizpidea hurbiltasuna izateak kezkatzen nau. Eta kito. Ez dago ereduaren inguruko galderarik, ez dago komunikaziorik, ezta koordinaziorik ere. Batzuek denbora gehiago ematen dute oporrak hautatzen haurren eskola hautatzen baino. Hau ez da ona, eta ez da horrela izan behar.

Pedagogia ikuspuntutik, familien utzikeria horren ondorioak jasaten dituztenak umeak dira. Txikienek, nortasuna identifikatzeko, kanpoko ispiluei begiratzen dietelako: gurasoei eta eskolari. Instituzio hauek batera ez badabilta, batera hazten ez badira, helburu bera betetzeko laguntasunez jokatzeko ez badute edo mezu desberdinak ematen badituzte, umea eta horren nortasuna desorientatzen dira. Etxean ikusten dituen bizitza interpretatzeko moduak ez dira eskolan islatzen, eta umearen portaera,

erreferente moralak argia eta batua ez bada, nahasten eta zoratzen da.

Horregatik guztiarengatik, gurasoen erantzukizuna ez da amaitzen eskola hautatzearekin. Hori lehenengo beharra baino ez da. Ondoren, seme-alaben onerako, eskola bizitza animatzeko eta dinamizatzeko parte hartu behar dute, ez berriz kontrolatzeko, fiskalizatzeko edo gaitzikatzearen sartzeko. Espiritu positiboak gidatu behar ditu, elkarren artean entzunez eta konfiantza izanez, egite eremuen mugak errespetatuz eta irakasleen zereginetan gehiegi sartu gabe.

Gurasoen erantzukizuna ez da bakarrik kexak aurkezteko agertu behar, hau da, zuzenketa puntualak egiteaz gain, irizpideak eraikitzeak erabili behar dituzte. Hala ere, zenbaiten ustez, partaidetza mugarik gabeko eta interpretazio askeko leku bat da. Hau ez da horrela. HLOk esplizituki esaten du ikasle baten matrikulazioak zentzoko hezkuntza proiektuarekiko errespetua eragiten duela.

Gurasoen eta irakasleen indar eta konpetentzien arteko banaketan oreka lortzen denean, hezkuntza komunitateak eskola etxe bihurtzen du, non pertsona zoriontsuak, jakitunak, orekatsuak, berdingabeak eta errepikaezinezko sortzeko esfortzua eta indarrak konpartitzen diren.

SEME-ALABEN AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA: HEZKUNTZA HELBURUA

Yolanda Remírez Echeverría
Mendillorriko El Lago Ikastetxe Publikoko Ama

Artikulu hau idazteko eskaera egin zidatenean, erantzukizun handia antzeman nuen, ni garrasika jarduten den ama naizen aldetik, goizero gauza bera behin eta berriro esanez: "azkar, jaso logela (bart gauen jaso behar zenuen), zeregina, kirol-poltsa prestatu duzu?" ez galdu



Yolanda Remírez Echeverría

ezer, atera arropa zikinak garbitzeko, garbitu hortzak, orraztu atzeko aldeak". Eta horrela ia 11 urte daramatzat. Beraz, maite eta miresten dudana amatalde "borrokalarik" batekin kafetertulia bat egitea erabaki nuen. Hona hemen eztabaidatutakoaren emaitza:

Gurasoak gure seme-alaben gaineko arduradun nagusiak gara. Izan ere, haurren gaineko erantzukizuna hartzen dugu horiek jaio aurretik: ikastetxearen aukeraketa (publikoa edo pribatua), erlijio irakasgaia aukeratu edo ez, hezkun-

Ikasgela

tza-eredua... -familiako bizitzen jarraibideekin eta estiloekin bat etorritik, gatazkarik sor ez dadin- eta hori guztia guk egin eta seme-alabei esaten diegunarekin modu **koherentean** egin behar dugu, pentsamolde ezberdinak dituzten pertsonak errespetatu eta onartzeko (kulturalak, ideologiak, arrazak...). Guztiok guztiengandik ikas dezakegu. Praktikan, gure prestakuntza- eta denbora-mugapenak onartu behar ditugu, hots, gizarte-presioa (gure buruarekin zorrotzegi izateko beldur gara eta errudun sentitzen gara). Hain zuzen ere, zereginak gure seme-alabek egin beharrean, guk egiten ditugu (motxilak, ordena, garbitasuna...). Ez diegu uzten gauzak gaizki egiten edo aukeraketak egiten, euren nahiei aurre hartzen diegu. Horrenbestez, ez dugu lortzen euren **autonomia** eta **independentzia**.

Eskolako jardueri dagokienez, oinarrizkoa da **motibazioa** eta **ikasketen nahiz ikaskuntzaren aldeko interesa**, esfortzuaren balorazioa, sendotze positiboa, ilusioaren ordeztasunaren ezarpena eta gauzak ondo egiteko asebetetzea areagotzea. Kultura orokorraren oinarrizko ezagutzak eta beharrezkoak komunikatzeaz gain, ikasleek eskolaren osteko ikasketak egin eta euren ingurunean praktikan aplikatu ahal izateko, familian aplikatzen diren prestakuntza-jarraibideak sendotu behar dira, horiek eskolan une oro aplikatu daitezkeen (errespetua, arauak, ordena...). Horrez gain, balioei buruzko hezkuntza eman behar zaie.

Eskolan **hezkuntza pertsonalizatuaren** gabezia nabarmena dago. Eskola biztanleria estandarri zuzenduta prestatu da, batez ere, patroia arruntak betetzen ez dituzten haurrak daudenean, edo eskolan haur horiei arreta emateko (batez besteko adimen-koefizientea baino handiagoa edo baxuagoa, egokitapen-arazoak dituzten etorkinak, nahasmendu ezberdinak...) behar besteko baliabide ekonomikoak ez daudenean.

Gure iritziz, eskolan agintaritzak irakasleek egikaritzen dute. Irakasleek arauak ezartzen dituzte eta guztion artean (gurasoak eta hezitzaileak) horiek bete behar ditugu, arau zehatz batekin ados egon ez arren.

Eskolak gurasoei laguntza handia ematen die. Irakasleei beharrezkoa den guztian gure errespetua eta laguntza izango dutela jakinarazi behar diegu, euren alboan gaudela edozein gauza egiteko, horiengan konfiantza dugula, euren zereginak betetzen utziko diegula eta zerbait gustukoa ez badugu euren komunikatuko diegula. Gurasoek ezin dugu zalantzan jarri (are gutxiago haurren artean) irakaslearen **agintaritzak**. Garai hauetan, gure seme-alabei irakasleak maitatzen eta baloratzen irakatsi behar diegu, txikiak zirenean bezala eta irakaslea polita eta argiena zenean gertatzen zen bezala.

Irakasleei arretaz entzun behar diegu, ohi bezala **idealizatu** ditugun gure seme-alaben balorazioa **ikus-puntu objektibotik** onartu dezagun. Nire ustez, beharrezkoa den neurrian soilik esku hartu behar dugu eta irakasleek euren erara jardun behar dute. Izan ere, irakasle gehienak lan hori gustukoa izateaz gain, horretaz gozatzen duten profesionalak ditugu, eta gure seme-alabentzako hobereana nahi dute. Benetan atsegina da urte

batzuk igaro ondoren irakasle on hura zein zen (irakurketara bultzatu ziguna, errieta egin zidana eta beste batzuei baino gehiago egitea eskatu zidana) eta gaur egun ni naizen hau izateko lagungarria izan zena gogoratzea.

Nire aburuz, gurasoen eta eskolaren arteko elkarrengana oso garrantzitsua da, batik batik, haurrek jasotako beharrezko hezkuntzaren gaineko erantzukizuna izateagatik. Eskolan gertatzen diren gertakizunen berri izan behar dugu eta gure seme-alabei eskolako garapen egokiaren gain eragina izan dezaketen egoerei buruzko informazioa eman behar diegu.

Berritoki ere gure seme-alabei, egunerokotasunari, zereginari, zorionei, zigorrari eta antzeko puntuei helduz, gurasoek benetan esku hartu behar ditugun esparruak izanik, sarritan, gauzak ondoegi egin nahian galdu egiten gara. Kasu horretan, APYMAren zeregina azpimarratu behar dugu, bereziki, gurasoen prestakuntzari dagokionez. Behin batean eskolara etortzen diren adituen artean, espezialista batek esan zuenez, **zigor** "egokiek" gurasoengan mina eragiten dute eta ez dute barrua arintzen. Zereginei arreta jarri behar diegula uste dut, baina disimulan. Gure seme-alabek ahaleginak egin behar dituzte euren buruari begira, baina ez irakasleak edo gurasoek hori egitea eskatzen dutelako. Bizitza honetan helburuak lortzeko gogor borrokatu behar dutela ikusi behar dute, gauzak beti ez dutela iritertzen bakoitzak nahi bezala, baina horiek lortzeko ahaleginak egin behar dira. Inoiz ezin dugu ahaztu seme-alabak **zoriontzak** horiek erdiesteko ahaleginak egiten dituztenean, oso harro gaudela, eta, bereziki, **entzun** egin behar diegu.

Orain dela egun batzuk nire seme-alabetako batek nire ametsa zein zen galdetu zidan eta nire erantzuna pertsona onak, langileak, independenteak... izatea zela izan zen. Orain, nire jarrerak BAKARRIK berrikusi behar ditut,

FAMILIARENGANDIK ETA ESKOLATIK ESPERO DUDANA

Andrea Berges Cengoitabengoa
Iruñako Plaza de la Cruz BHIko 2. Batxilergoko ikaslea

Gai honen inguruan zerbait idazteko proposatuko zigitenean, egia esanda, gauza gutxi esateko nuela pentsatu nuen, horiek helduen gauzak zirela. Bero, ez nekien ondo zelari hasi eta azkenean lagun batekin hitz eginez, gai inguruko ideia batzuk bururatu zaizkit eta horiek azalduko ditut.



Andrea Berges Cengoitabengoa

Ikasgela

Hezkuntzan gurasoen erantzukizunari buruzko nire iritzia idatziko dut eta oso argi daukat gure hezkuntza nagusitzen dutenak gurasoak direla.

Etxean esaten digutena hezkuntzan baliorik handiena duena da. Oso argi dago. Klaseko lagunak ikusten ditudanean, noka portatzen diren, nola pentsatzen duten... berehala imajinatzen dut gurasoak nolakoak izango diren, seme-alabekin benetan arduratzen diren gurasoak diren edo paso egiten duten. Seme-alabok etxean ikasten dugunaren isla gara.

Guraso eta seme-alaben arteko harremanean gehien baloratzen dudana konfiantza da. Eta konfiantza hori izateko gurasoek asko hitz egin behar dute seme-alabekin, komunikazioa ezinbestekoa da, bestela gurasoek ez dakite zer pasatzen zaien, ez eskolan ez lagunekin. Nire lagun batzuk ia ez dira egoten gurasoekin, ez dute elkarrekin bazkaltzen, ia ez dira ikusten, eta kasu honetan, ezinezkoa da elkar ezagutzeko, eta horregatik askotan gurasoek ez dakizkitez seme-alabei pasatzen zaien gauza garrantzitsu batzuk eta ez dute ezer nabaritzen. Ez dut ulertzen zelan ez dira konturatzen seme-alabei gertatzen zaizkien gauzez, ez dituzte keinuak ikusten aurpegian edo ez dituzte ezagutzen? Orain konturatzen naiz; nire gurasoek telebista ikusi gabe zigortzen nindutenean eta niri oso txarto iruditzen zitzaidanean, nahi zuten gauza bakarra hitz egitea zen eta gauzak kontatzeko hitz egitea eta modu horretan pixkanaka-pixkanaka gai desberdinen inguruko bakoitzaren iritzia ezagutzeko, edo bakoitzak egiten duena edo norekin ibiltzen den. Egia delako, elkarrizketa horietan hori guztia irteten delako.

Baina hitz egitea esaten dudanean, ez dut esanahi gurasoek galderaz jostea eta poliziarena egitea galdetegiekin, kasu horretan ihes egiten duzulako eta azkenean ez diezulako ezer kontatzen. Gurasoek seme-alabei egunero behin gutxienez egin behar dieten galdera hau da: Zer moduz eguna? Eta horrek arduratzen direla esanahi du, zu ezagutzeaz arduratzen direla, ez kuxkuxean ibili nahi dutela.

Komunikazio hori irakasle eta gurasoen artean ere beharrezkotzat jotzen dut. Ikaslearen egoeraren arabera gurasoen eta irakasleen arteko elkarrizketa gehiago edo gutxiago egongo dira, baina irakasleak eta gurasoak noizbehinka elkartu behar dira, horrek interesaturik dudelako erakusten duelako.

Ikastetxean argi dago zeintzuk diren etxean laguntzarik gabe dauden ikasleak. Ikasle horiek eskolara joaten dira denbora pasatzeko eta ez dute estimulurik. Gurasoak interesatuta egon behar dira eskola bizitzarekin, eta ez bakarrik azterketetan ateratzen dituzten notekin. Haiei es-

kolako egoera inportatzen ez zaienean, ahal dutenean ikasteari uzten diote. Askok ikasteari uzten diotela etxean laguntzarik ez dutelako uste dut.

Baina zure arazoak konpontzeko aukera ez ematea ere ez da ona. Gauza batzuetarako laguntza eskatu ahal dugu, baina gure kabuz konpondu behar ditugu gauzak gehienetan, bai etxeko lanak egiteko bai eskolako gatazkak konpontzeko. Esaterako ez zait egokia iruditzen gurasoek seme-alaben lanak egitea, baina laguntza eskatzen zaienean parte hartu behar dutela uste dut.

Gurasoek egiten duguna baloratu behar dute. Niri beti esaten zidaten, egiten duzunerako esfortzatu, agian txarto aterako zaizu, baina lan egin duzu eta horrek balore handia du. Oso ona da ikastea, ez bakarrik lan ona izateko edo dirua irabazteko (gainera, askotan ikusten dut hori ez dela horrela), baizik eta kulturagatik eta prest egoteagatik. Hori beti nabaritzen da eta munduan zehar seguruago sentitzeko aukera ematen du.

Geuk, seme-alabok, badakigu noiz merezi dugun saria, hau da, noiz den egokia onarpenak edo sariak jasotzea. Nire lagun batzuei beti ematen dizkiete sariak, berdin da nola portatzen diren, berdin da nolakoak izan diren notak. Merezi ez duzunean sariak jasotzea ez da egokia. Azkenean, neska-mutil horiei berdin zaie dena, gaizki hezitakoak izaten dira, eta ez dira inoiz ahalegintzen gauzak lortzeko, dena oso erraz jarri dietelako. Nire ustez, ezagutzen dudanagatik, laster uzten diote ikasteari eta ez dute oso argi zer izan nahi duten.

Sariekin gatazkak egoten dira, baita zigorrekin ere. Inori ez zaio gustatzen zigorrak jasotzea, baina bilatu baduzu, uste dut ondorioak ordaindu behar dituzula, eta gainera gurasoek amaieraraino heldu behar dute, ez dute zigorra barkatu behar, hori nahasteko bakarrik balio duelako, eta azkenean beti barkamenaren zain egoten zara, eta jarrera horrekin errespetua galdu egiten da.

Egia esanda, ondo ezagutzen dudana gertatu zaidana da. Nire eskola bizitzaren momenturen batean dena uzteko zorian ibili nintzen. Hutsegite handia izan nuen, baita zalantza asko ere, baina laguntza desberdinei esker gaintu nuen. Orientatzaileak eta tutoreak asko lagundu zidaten (langile bi horiek oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit eskola zentroetan, ikasleekin arduratzen direnean). Bai batak bai besteak gurasoekin hitz egiten zuten. Argi dago, irakasleek beste tratua mota bat izaten dute zurekin zure gurasoak atzean dituzula eta bakarrik ez zaudela ikusten badute. Baina lagundu zidatenak, batez ere, gurasoak izan ziren eta haiek hor zirela jakiteak asko lagundu zidan ikasketekin aurrera jarraitzeko.

Prentsa albisteak

– “Calderak Ilundáin Fundazioaren eta Esther Pagola irakaslearen lanak saritu ditu”. 2007ko urtarrilaren 17ko Diario de Navarra.

– “Hezkuntza kalitaterako saria Cuatrovientos instituturako”. Iruñako Cuatrovientos Lanbide Heziketako Institutuak Marta Mara hezkuntza kalitaterako saria jaso

Prentsa albisteak

du, MECK emandakoa. 2007ko urtarrilaren 23ko Diario de Noticias.

- "Hezkuntza komunitateak ez du onartzen biolentzia ohikoa denik geletan. Eskola Kontseiluak azken gertakariak salbuespenak direla azpimarratu du". 2007ko urtarrilaren 31ko Diario de Navarra.
- "Unibertsitateko ikasleak belo azpian" 2007ko otsailaren 9ko Diario de Navarra.
- "Eskola fotoboltaikoen sareak sari bat jaso du hiria energia aurreztean inplikatzegatik". 2007ko otsailaren 9ko Diario de Noticias.

- "Nafarroako ikaslerik onentzako sariak banatu dituzte kategoria desberdinetan". 2007ko martxoaren 22ko Diario de Noticias.
- "Joaquín Maya Musika Eskolako lau ikaslek sariak jaso dituzte piano lehiaketa batean". 2007ko martxoaren 27ko Diario de Navarra.
- "Nafarroako lau ikaslek Batxilergoko eta LHko Sari Nazionalak jaso dituzte". 2007ko apirilaren 17ko Diario de Navarra.
- "Nafarroako bi ikaslek urrezko eta zilarrezko dominak jaso dituzte Kimikako Olinpiadaren Aldi Nazionalan". 2007ko maiatzaren 3ko Diario de Navarra.

Bibliografia

- "Las políticas educativas en España". Ranking de Excelencia Educativa. 2007ko urtarrilaren 18an. Etikaren aldeko langileak
- "Anuario de la Educación 2006". Nafarroako edizioa. Magisteritza.
- "Dirección escolar para el cambio". Temáticos Escuela. 2007ko otsaila. Praxis.
- "La ética en las organizaciones". OGE aldizkariaren monografikoak. 2007ko urtarrila eta otsaila, 1. Praxis.
- "Educación para la ciudadanía". Cuadernos de Pedagogía 366. zbk, 2007ko martxoa.
- "Evaluación diagnóstica". Revista Organización y Gestión Educativa, 2. Zbk, 2007ko martxoa eta apirila.
- "Reflexiones en torno a la integración del trabajador social en el centro escolar". Aula aldizkaria, 160. Zbk, 2007ko martxoa.

Araudiaren aipamena

BOE

- Eskola bizikidetasunerako behatokia. 275/2007 E. D, otsailaren 23koa (2007ko martxoaren 15eko 64. BOE)
- Irakaskuntza pribatuko enpresen V. hitzarmen kolektiboa, guztiz edo partzialki fondo publikoen bitartez sostengatuak. 2006ko abenduaren 28ko ebazpena. (2007ko urtarrilaren 17ko BOE)
- MEC eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren arteko hitzarmena eskola liburutegiak hobetzeko. 2006ko abenduaren 26ko ebazpena (2007ko otsailaren 3ko 30. BOE)
- Irakaskuntza Artistikoen Goi Kontseiluaren Arautzea. 365/2007 Errege Dekretua. (2007ko apirilaren 4ko 81. BOE).

22/2007 E. D, martxoaren 19koa (2007ko maiatzaren 4ko 56 NAO).

- Nafarroako Foru Erkidegoko zentro publikoetan eta pribatu kontzertatuetan ikasleen harreraren arautzea, unibertsitate ikasketak ematen ez dituztenena, 2007/31 FD, apirilaren 2koa (2007ko apirilaren 27ko 52. NAO).
- Apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako Zentro Publikoetako eta Pribatu Kontzertaturikoetako eragin esparruak ezartzen dira, zeinen bitartez ikasleen harrera arautzen den. 31/2007 F. A, apirilaren 16koa (2007ko apirilaren 30eko 53. BOE).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa. 148/2006 FA, azaroaren 21ekoa (2007ko urtarrilaren 8ko 4. NAO)

NAO

- Musikako irakaskuntza profesionalen curriculumak ezartzen da Nafarroako Foru Erkidegoan. Martxoaren 19ko 21/2007 F. D. (2007ko maiatzaren 4ko 56. NAO)
- Erregimen bereziko hizkuntza irakaskuntzen maila oinarritzko eta ertaineko curriculumak ezartzen da.

- Lehenengo Hezkuntzako aldi amaieraren ikasketak txostenaren ereduak ezartzen da, 2006/2007 ikasturteik eta 2008/2009 ikasturtera arte, biak barne. 172/2007 ebazpena (2007ko apirilaren 20ko 49. NAO).
- Informatizatutako fitxategi bat sortzen da Unibertsitatekoak ez diren Titulu Ofizialak izendapenean,

Araudiaren aipamena

2007/7 FA, otsailaren 8koa. (2007ko martxoaren 28ko 38. NAO)

- Euskalduna ez den zonaldearen ikastolen finantziazioa, uztailaren 2ko 26/2002 foru legeak arautzen zuena. 2007/7 Foru Legea, martxoaren 23koa (2007ko apirilaren 2ko 40. NAO)
- Foru Erkidegoko langileen hitzarmen kolektiboa. 2007ko urtarrilaren 15eko hitzarmena (urtarrilaren 24ko 11. NAO).
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren eta Barne Ministerioaren Trafiko Zuzendaritza Orokorraren arteko hitzarmena, bide hezkuntzari dagokionez (2007ko otsailaren 5eko 16. NAO)
- Hezkuntza Kontseilariari ahalmena ematen zaio "2005eko martxoaren 10eko Irakaskuntza Kontzerturiko Sektorean Hezkuntza Kalitatea eta Lan Baldintzak hobetzeko Hitzarmenaren Hitzarmen Osagarria" beregain hartzeko, burutzeko eta jarraipena egiteko, eta horren bitartez, abenduaren 27ko 17/2006 Foru Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriaren I. eranskinean ezarritako hezkuntza kontzertuen ekonomia moduluak aldatzen diren, 2007. urteko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrari buruzkoa. 2007ko martxoaren 12ko hitzarmena (2007ko apirilaren 11ko 45. NAO).

Nafarroako Foru Erkidegoko Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa arautzen da. 29/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa. (2007ko maiatzaren 4ko 56. NAO)

Onarturiko arauak hezkuntza kalitate, ongizate eta segurtasun esparrua sortu nahi du, behar bezala antolatua, haurren desberdintasun pertsonalak, kulturalak eta sozialak konpentsatzeko gaitasunarekin eta horiei, familien lankidetzarekin batera, nortasunaren eta gaitasunen garapen egokia bermatzeko.

Haur hezkuntzako lehenengo zikloa arautzen du, zikloa duten zentro publikoek eta pribatuak bete beharreko betekizunak ezartzen dira eta zikloko hezkuntza edukiak ezartzen dira.

Zikloa borondatezkoa da, zero urtetik hiru urtera bitarteko umeentzat, aipatzen diren helburuen arabera. Ziklo osoa edo ikasturte bakar bat ematen duten zentroetan eskaini ahal izango da.

Zentroek pedagogia proposamena formulatu behar izango dute, hezkuntza praktika arautzen duten pedagogia eta ebaluazio helburuak, edukiak eta printzipioak hartuko dituen. Arauan espresuki zehazten dira. Edukiak garapen eta esperientzia esparruetan antolatzen dira.

Zentroek familiekin batera lan egingo dute horien oinarriko hezkuntza erantzukizuna errespetatzeko. Seme-ala-

ben hezkuntza prozesuari buruz informatzeko beharra aipatzen da.

Hezkuntza Sailak prebentzio eta konpentsazio jarduerak egin behar izango ditu haurren arteko desberdintasunak saihesteko. Zentzu honetan, hezkuntza laguntzaren behar espezifikoaren arreta agintzen da eta harrera prozesuen arautzea zentroetan, berdintasun baldintzen arabera. 16 aste baino gutxiago dituzten haurren hartzea debekatu egiten da.

Haur hezkuntzako zentroa zer den definitzeko beharrezkoa dena arautzen da eta izaera pribatua edo publikoa determinatzeko, funtzionamendu egutegia eta ordutegiak ezartzeko eta administrazio baimena lortzeko betekizun fisikoak eta langileenak. Administrazio baimena emateko eta kentzeko prozedura zehazten da, bai zentro publiko-etarako bai zentro pribatu-etarako.

Haur hezkuntzako lehen zikloko haurrekin hezkuntza lanean zuzenean aritzen diren langileek maisu-maistra titulua izan behar dute haur hezkuntzako espezializazioarekin edo baliokidea den gradu titulua; eta, hala denean, adin horretako haurrekin aritzeko beharrezkoa den titulazioa duten beste langile batzuk ere izaten ahal dira.

Hezkuntza Departamentuak diru publikoa jasotzen duten ikastetxeen antolaketan, gobernuan, funtzionamenduan eta ebaluazioan hezkuntza komunitateak izanzen duen parte-hartzea arautuko du. Ikastetxeek autonomia izanzen dute antolaketaren eta pedagogiaren eredia zehazteko, indarra duen legeriaren esparruan. Autonomia hori hezkuntza proiektu batean eta kudeaketa proiektu batean zehaztuko da.

1996ko urtarrilaren 11ko Aginduan² ezarritakoaren arabera lortutako lanbide gaitasuna nahikoa izango da lehenengo zikloa emateko.

Zikloa 2007/2008 ikasturtean ezarriko da orokorrean.

Udal zentroek eta zentro pribatuak hiru urte izango dute dekretuan ezarritako betekizunekin egokitze eta dagozkion zentroaren sorrera eskatzeko.

Otsailaren 10eko 24/1997 FD³ indarrrik gabe gelditzen da, ziklo honi dagokionez, eta uztailaren 6ko 251/1992 FD⁴, ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezarri zuena.

2 1996ko urtarrilaren 11ko agindua, zeinen bitartez Haur Hezkuntzako, Lehenengo Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakasleentzako espezializazio ikastaroak eta Haur Hezkuntzako Lehenengo Zikloko irakasleen prestakuntza ikastaroak homologatzen diren. (1996ko urtarrilaren 23ko BOE)

3 Otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua, zeinen bitartez Haur Hezkuntzako eskola publikoetako, Lehenengo Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur Hezkuntzako eta Lehenengo Hezkuntzako ikastetxe publikoetako arautegi organikoa onartzen den Nafarroako Foru Erkidegoko lurralde esparruan (1997ko martxoaren 14ko NAO)

4 Uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretua, zeinen bitartez Nafarroako Foru Erkidegoan unibertsitatetik kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntza ematen duten zentro pribatuak baimentzeko prozedura ezartzen den (1992ko abuztuaren 3ko 93. NAO)

Araudiaren aipamena

Indarrrik gabe gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoak xedapen guztiak.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzen curriculuma. Martxoaren 29ko 23/2007 FD (2007ko apirilaren 25eko 51. NAO)

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxienezko irakaskuntzak abenduaren 29ko 1630/2006 EDk⁵ ezartzen ditu. Hezkuntza Administrazioei dagokie, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 5. artikuluan⁶ ezartzen denez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko curriculuma ezartzea, eta edonola ere, gutxienezko irakaskuntzetan biltzen dena. Beraz, Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu honen bitartez curriculum hori ezartzen du. Curriculuma garatzeko eta osatzeko arduraduna da

Haurtzaroa gizakiaren garapenerako erabakigarrienak diren eboluzio aurrerapenak izaten diren bizitzaren aroa da. Beraz, foru dekretu honetan ezartzen dira, haurrentzat, kalitatezko hezkuntza-ingurune batean eta ingurumen atsegin batean beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko beharrezkoak diren neurriak. Bilaturiko garapen pertsonalari eta prestakuntza garapenari koherentzia ematen dioten hamazazpi printzipio ezartzen dira.

Arauk curriculumaren edukiak antolatzen ditu, arauak espresuki aipatzen dituen prestakuntza hiru arloetan. Curriculumaren helburuak ikasleak aldi bakoitzean garatu beharreko gaitasun moduan hartzen dira. Ebaluazioaren helburua hartutako ikasketen identifikazioa da eta lorturiko garapenaren balorazioa. Ikasketa-irakaskuntza prozesua ikasleen ezaugarri pertsonal, behar, interes eta estilo kognitiboaren arabera egokitu behar dela ezartzen da. Azkenik, familien lankidetzaz azpimarratzen da prestakuntza prozesuan

Arauk Nafarroako Foru Erkidegoko zentro publikoak, pribatuak eta kontzertaturikoak hartzen ditu.

Aldia hiru urteko bi ziklotan antolatzen da, zerotik sei urte bitartekoentzat. Berezko izaera eta borondatezkoa du eta doakoa da bigarren zikloan.

Arauk aldiaren helburuak aipatzen ditu, helburuak ezartzen ditu eta sailetan antolatzen ditu edukiak. Sailak irakaskuntza espazioak dira. Sail bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak eranskinean biltzen dira.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan atzerriko lehen hizkuntza ikasten hasiko dira ikasleak. Halaber, irakurketarako eta idazketarako lehenbiziko hurbilketa sustatuko da, hala nola zenbakien arloko abilezia oinarritzeko hastapen-esperientziak, informazioaren eta komunikazioaren teknologietakoak eta adierazpen ikusizko eta musikalak.

Ebaluazioa formatiboa, etengabea eta guztizkoa izango da eta lortutako ikasketak identifikatzeko baliagarria izango da, baita haurren erritmoa eta eboluzioaren ezaugarriak ere identifikatzeko. Gainera ikasketa prozesua eta hezkuntza praktika ere ebaluatuko dira.

Testuak zentroetako autonomia pedagogikoa eta antolamendukoa sustatzeko agintzen du, irakasleen talde lana bultzatzeko eta irakasleen gizarte onarpena zaintzeko. Zuzendaritza taldearen beharrak aipatzen ditu hezkuntza komunitateari dagokionez, eta hezkuntza prozesuan zehar familien lankidetzaz eta partaidetzaz bilatzeko beharra aipatzen da.

Haur Hezkuntzaren eta Lehenengo Hezkuntzaren arteko koordinazio irizpideak ezartzeko agintzen du eta dibertsitatea behar bezala tratatzeko, guztien garapena eta arretra pertzonalizatua bateratuz.

Erlijio irakaskuntzak Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan sartuko dira, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera. Borondatezkoak izango dira irakaskuntza horiek eta irakaskuntza horien curriculuma definitzeko autoritate erlijiosoen eta elizaren hierarkien kompetentzia errespetatzen da

Indarrrik gabe gelditzen da 574/1991 Foru Dekretua, abenduaren 30eko⁷, baina horren aplikazioa agintzen da Haur Hezkuntzaren ordenazio berria ezarri arte, ekainaren 30eko 806/2006 Ean⁸ ezarritakoaren arabera.

⁵ Abenduaren 29ko 2006/1630 Errege Dekretua, zeinen bitartez Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntza minimoak ezartzen diren (2006ko urtarrilaren 4ko BOE).

⁶ Maiatzaren 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoa (2006ko maiatzaren 4ko 106. BOE).

⁷ Abenduaren 30eko 574/1991 Foru Dekretua, zeinen bitartez Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen den (1992ko urtarrilaren 29ko NAO).

⁸ Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua maiatzaren 3ko Hezkuntza Lege Organikoak ezarritako hezkuntza sistemaren ordenazio berriaren aplikazio egutegia ezartzen den (2006ko uztailaren 14ko 167 NAO)